

ARRASATE

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2

PRESS

Arrasate 1989ko Aberriak 22 45. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Jai-hotsa gure artean

Santamasak 89

Iturengo ttuntturroak

Roberto Mendil

**LAISTER
ZUREKIN**
ARRASATEN
ITURRIOZ 8-11-770401

IKATZ-GASTEIZ
GABONETAN
SALNEURRI
BEREZIAK

IKATZ
ARGAZKI ETXEA

DENDARABA
MERKATAL ZENTRUA
TFNOA: 28 98 11

ESTIBALIZ ETORB. 2.
TFNOA: 27 09 22
01004 GASTEIZ

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraloak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--	--------

21 OSTEGUNA

— Zinea: Alai: "Noche de miedo". 7 eta 9,30etan.

— Santamas jaiek:

- AED lehiaketan sari banaketa. 7etan Monterronen.
 - Santamas txerriaren aurkezpena. 7etan.
 - Trikitilarien kalejira. 7,30etan.
 - Incansables txerriaren kalejira. 7,30etan.
 - Dantzaldia Aker taldearen eskutik. 10etan Biteri aparkalekuan.
 - Dultzainarekin kalejira. 11etan.
- Guardiako farmazia:
J.A. Irizar, Magdalena.

22 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Noche de miedo". 7 eta 9,30etan.

Novedades: Gringo viejo. 10,30

— Santamas jaiek:

- Lore Gazteak eta Arrasateko Dultzainarekin kalejira. 9,30etan.
- Fruitu, barazki, hegazti eta gazten lehiaketa, erakusketa eta salmenta. Goizeko 10etan Azokan.
- Eskualdeko ganadu lehiaketa eta nekazar makinariaren feria. Goizeko 10etan Nafarroa etorbidean eta Zaldibarren.
- Artisau lanen erakusketa. Biteri aparkalekuan goizeko 11etan.
- Arrasateko Dultzainari, Txaranga Incansables, Iturengo Tunturroekin eta Koplariekin kalejira. 11etan.
- Azokan eta Ganadu ferian sari banaketa. Goizeko 11,30etan.
- Eskaparate lehiaketaren sari banaketa. 12,30etan.
- Santo Tomas aizkolari txapelketa.
- Olasagasti eta Zabalegi, Arrospide eta Mugerzaren aurka. Zaldibarren eguerdiko 12,30etan.
- Harrijasotzaileak: Goenabro, Bigitagi, Carlos Puello, Mikel Saralegi eta Iñaki Perurena. Ordubatean Zaldibar Pilotalekuan.
- Herri bazkaria: Kirodegian eguerdiko 2,30etan.
- Haurrentzako zinema: "El secreto de los fantasmas". 4etan Amaia Antzokian.
- Bertso saioa: Peñagarikano, Telleria, Agirre, Lazkao Txiki, Jon Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelai. Amaia antzokian arratsaldeko 7etan.
- Dantzaldia Gaurko Berri taldearen eskutik. Biteri aparkalekuan gaueko 10etan.
- Txerri zozketa. Gaueko 12etan.

— Guardiako farmazia:
A. Ruiz, Magdalena.

23 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Noche de miedo" 5, 7 eta 10etan.

Novedades: La chaqueta metálica. 5, 7,30 eta 10,30

— Santamas jaiek:

- Haurrei zuzendutako ipuin kontaketa eta marrazkiak Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaen eskutik. Eguerdiko 12etan eta arratsaldeko 5etan.
 - Kontzertua: Golkobalu abesbatza-aren aurkezpena eta Arrasate Musikal. Juan Bataiatzailearen parrokiaren arratsaldeko 7,30etan.
 - Rock jaialdia: Hertzainak, M-ak, eta Zarama musika taldeekin. Gaueko 10etan kirodegian.
- Guardiako farmazia:
A. M. Morales, San Andres.

24 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Escandalo"

Novedades: La chaqueta metálica. 5, 7,30 eta 10,30.

- Txorronpio Oñentzeroren Arrasateko lagunaren irteera, goizeko 11etan. Herrian zehar ibiliko da, Oñentzeroren erreka-doak batzen.
 - Oñentzeroren irteera arratsaldeko 5etan. Ibilbidea: Ferialekua, Maala, Portaloia, Oñati, Zarugaide, Udaia Plaza, San Andres, Portaloia eta Biteri.
 - Oñentzeroren agurra. Biteri aparkalekuan arratsaldeko 7,30etan.
- Guardiako farmazia:
A. Azkoaga, Ferrenas.

25 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Escandalo". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: Gringo viejo. 5, 7,30 eta 10,30

— Guardiako farmazia:
S. Español, Iurretotz.

26 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Escandalo". 7 eta 9,30etan.

— Guardiako farmazia:
M. Corcuera, Musakola.

27 ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: Ez dago sesionik

— Guardiako farmazia:
J.A. Irizar, Eguin.

28 OSTEGUNA

— Zine-klub: "Autobus atómico". Amaia antzokian, arratsaldeko 8,30etan.

— Guardiako farmazia:
L. Amezua, Santa Marina.

LEHIAKETAK

Santamas VII. argazki lehiaketa. Oinarriak Udaltzaingoa-aren bulegoan eta laguntza ematen duten dendetan egongo dira.

Eskaparate lehiaketa. Epaimahala herrian zehar ibiliko da dendetako eskaparateak ikusteko.

ERAKUSKETAK

Monterronen Arte Hamabostaldian egindako lan, bideo eta katalogo-aren erakusketa.

neska-mutilak adi!!



laster... Arrasaten...

... Musakola aldean...

... ondo pasatzeko...

... sari-zozketak... lagu-
nekin joan zaituzten...





ARRASATEKO UDALA

ZABOR-BILKETAZ OHARRA

Eguneroko ZABOR-BILKETA zerbitzua ahalik eta ondoen eta azkarren egin ahal izateko, zabor kamioia pasatzen den kaleetan eta orduetan autorik traban ez uztea erregutzen zaie arrasatear guztiei.

Gaizki aparkatuta egoteagatik bilketa-zerbitzuan eragozpenik sortzean dituztenen aurka Udal honek beharrezko neurriak hartuko ditu.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotzak.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3
Bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Haurrak eta euren eskubideak

Haurrak beti haur. Horrela izan da orain arte eta horrela jarrai dezala izaten euren eta guztion gogosasunerako. Baina, haurrena gizaldiak dituen kidegoetakorik desbatestuena dugu, helduok -hau da, gu gurasook- legedia sortzerakoan umeen gaineko abstrakziorik itzeleina egin baitugu. Dirudienez, umeen lege-egoera hobetu asmoz, amaitezinezko prozedura luze baten urratsak ematen ari dira nazioarteko mailan.

Iragan azaroan, teoriak haurren eskubideak defendatzen dituen legearen inguruko eranskina onartu zuen Nazio Elkartuen Erakundeak, Ginebran eraturiko bileran. Denboraldi luzea azterketari eskaini ondoren, "Carta Magna" dei geneza-keena berpiztu nahian, umeen gaineko arautegi babesle berria egituratu da.

Oztopo guztien gainetik, adituen lan batzordea su eta gar ari da dagoneko lanean, NEEren burokrazia eta geldokeria azpiratuko duteneko esperantzan. Ustea ustel gerta ez dakien, makineria topean ipini beharko dute, izan ere inori ez bait zaizkio arrotz hitz ponpoxoetako aitortenak zertan amaitzen diren. Oraingoan ere arrisku berbera dago.

1959an onartu zuen NEEk Haurren Eskubideen Aitorpena. Ordutik gure egunera arte, zenbat eraso eta zenbat injustizia ez da -auskalo zeren izenean!- umeen

kontra egin? Gizadiaren sufrimendua, berez, onartezina izanik, zer ez da esan behar sufrimendu ikaragarri horren lehen biktima umea denean? Eta, kontuz! ez da sistema politiko konkreturik salatu behar, izatez errejimen guztietan ematen bait da umearekiko diskriminazioa.

Agian, denok gogoratuko ditugu Etiopiako ume deshidratatuen argazki lazgarriak, gerrak zeharo elbarrituriko kanbodiak haurrenak edota goseteak jotako perutarrenak ere... Baina zerrenda ez da hor amaitzen. Estaturik aurrerakoienetatik ere albiste ikaragarriak iristen zaizkigu noizean behin; horratx, esaterako, EEBBetako Montana eta Mississipi-ko legeek onarturiko haur-ejekuzioaren posibilitatearena. Eta, urrutira gabe, zer esan umeek nagusiengandik jasaten duten sexu-bortizkeriaz edota gure etxeetan haurrei sarri eskaintzen zaien erabilera ezgizakioaz?

Umea, defentsagabeko izaki hori, gizarteak lehentasunez zaindu beharko lukeen kidea dugu, helduon etsipen eta frustrazioek handiengan ispilurik izan beharko ez luketelarik. Gizartea denok osatzen dugula gogoratu behar dugu. Eta NEE eta antzerako erakundeek hitz boroiletako aitortenak kaleratu arren, ez dela haurren defentsan ezer aurreratuko gure laguntza osorik gabe.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**

Mila esker gure herriko zinegotzi ezkertiar eta talde ekologistei

Orain hilabete batzuk Altamira aldean etxe-bizitza berrien eraikuntza hasi zen. Babes publikoko etxebizitzak, dirudik gabeko (edo gutxiko) pertsonentzat, etab. Dena oso polita.

Bat batean, etxe bizitzak eraikitzeo aukeratutako tokitik aurreratxoago joan eta eskabadorak *bi arte* eta hirurehun metro kartratutik gora eraman zituen aurretik. Gure tekniko ospetsuen planoak gaizki omen zeuden.

Metroena ez zen hain kalte handia. Pinauk zeuden bertan eta... beno. *Arteak*, alde-rantziz, bostehun urte, zortzirehun... auskalo. Ez dugu uste Arrasaten holakorik zegoenik.

Udaletzeko inor ez zen etorri. Gu joan ginen eurengana baina ez zuten inongo penarik adierazi hildako *arte* haiengatik. Dena den, arteak ez zeuden bakarrik: euren ondoan beste lau arte eta haritz handi zahar bat (zaharra baino sano eta lerdena). Arrasaten ez dago bertatik bizi den baserriar asko baina Altamirako etxeko-andreak han du inguruan etxea- eta, azken batean, baserri giroa. Teknikoen eginkizun ganorazkoen ondorioz gure etxeko-andreak, goiz batean, hor non aurkitzen duen bere baratza ia erorita. Orduan ere, guk abisatu, tekniko partikularrak deitu eta diru publikoz ordaintzen ditugun teknikoek horma eraiki zuten susto galanta pasa eta sikuteari esker erori ez zen baserriaren azpian. Aste pare bat erreguka ibili ginen, hala ere...

Hau dena pasa ondoren eta Udaletxeak beste jarrera bat izango zuelakoan, hor beste susto bat: arte erdi erditik eta baserri muturrean bide bat. Susmoa harturik geundenez, bizpahiru aldiz galdetu genuen Udaletxean ia kanposanturako akzesoa (bideak) nola zihoazen eta zer egin behar zuten. Hasieran, lasai egoteko esan ziguten: hori kanposantuari dagozkion arau berrien barnean sartzen zela eta erabaki, proiektu eta abarren berri jakingo genuela, errekurtsioak, altematibak eta behar genuena adieraziz.

Hor sorpresa, azaroaren seiko komisio batean eta obra arrunta bezala onartzen da. Udaletxearen arrazoia: lehen pista bat zegoela eta Udaletxeak obra hori pistaren zabalketatzat har eta egin zezakeela.

Ez zitzaigun oso normala iruditzen eta kontsultak egin ondoren, oso zalantzakoa zela horrela onartzea, maila eta helburu horretarako proiektu bat adierazi digute gure aholkulariek. Azaroaren azken aldera (24ean) idatzi bat aurkezten dugu: gure terreno eta arte horiei dagokien erabaki bat denez, notifikazioa ganoraz egin diezaguten. Erantzunik ez eta abenduaren bateko plenoan espropiazio espedientea proposatu nahi dela

aditzen dugu. Horren berri ba duzue. Inongo adierazpen formalik ez dagoenez, alkatearengana jotzen dugu (abenduaren 12an) eta ez dugu inongo erantzunik jasotzen: ez idatzita eta ez ahoz. Beste jabe batzuk proiektu alternatibo bat aurketen dute: baserria salbatzeko, ingurua gutxiago izorratuz bidea zalantzan jartzen ez duena. Ez dago erantzunik.

Abenduaren 19an komisioko bilerara azaltzen gara eta garai batean ekologista azaltzen zen zinegotzi ospetsu batek hauxe esaten digu: "*total, arte horiek 50 urte-edo bi urte irau dezakeela...*" Ia beste bide alternatibo batzuk ikusi diren galdetzerakoan (lehendik izorratuta dagoen beste alde batetik...) baietz esaten dute eta nondik edo nola galdetzerakoan, "*harbelean zirriborro batzu egin dituztela...*" Hau sinatzen dugunok ez gara interes pribatu batez mugitzen: arte horiek denon patrimonioa direla uste dugu eta kristoren sarraskia egingo dugu, laster kanposantura beste akzesoa bat egin behar denez eta oso beste alde batetik. Guk, gure poltsikotik ikerketa bat enkargatu dugu denon diruarekin ordaindutako zalantzakoa proiektu horri aurka egiteko. Udaletzeko proiektuak legezko den formalismo guztiak hautsi eta ingurua zaindu nahiean bizi den familia batzuen eguneroko bizimodua osoa zapuztu du, prepotenzia eta gutxiespen osoa muturretatik paseaz. Lehengo denporetan baino gutxiago inporta ote da ingurua eta jendearen bizimodua? Orain gutxiago omen dugu salbatzeko gure aurrerako eskuindarrak dena izorratu omen ziguten eta. Non daude ekologistak? Abenduaren lehen astean Eguzkikoekin hitz egin genuen, arbola horiek zuhaitz babesgariak zirela eta aurrean dagoen mendi zati zoragarri bati agur egin beharko geniola Udaletxearen jarrera ikusita. Ingurua eta zuhaitzak ikustera etorri behar omen zuten erabaki bat hartu baino lehen, baina bere "*kuerda politiko berdineko*" alkatearekin mintzo ere bai. Ez dira arteak-haritzabase-rria-mendia eta Altamira eta San Kristobal ingurua ikustera etorri; alkatearekin mintzo omen dira eta siglak ingurua baino baliotsuagoak omen dira orain ere.

Ez duguna ulertzen hauxe da: beste alternatiba batzuk egonda, zein interes dagoen denak ganoraz ez ikertzeko?

Beste bat behintzat aurkeztu dugu eta besteren batzuk ere iker daitezke. Zergatik edo zein interes dela bide Udaletxeak normala ez den bide juridiko bat erabili nahi du, denon defentsarako beste bide batzuk garbi azaltzen direlarik?

Altamira baserriko biztanle eta sendiak



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

"PAL"

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribari etorbidea 3, Tfnoa: 79 31 99

E D E L TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garbal 3, 79 22 96 ARRASATE

Egiten dituzu opariak gabonetan? Zer nolakoak?



Pilar Alonso
(etxeoandrea)

Bai. Dagoeneko nagusiak ditut neskak eta arropa erosten diet. Mutikoei aldiz jostailuak.



Jose Manuel Mancisidor
(langilea)

Gauza horietaz nire emaztea arduratzen da. Haurrak oraindik txikiak ditugenez, jostailuak, panpinak eta horrelakoak oparitzen dizkiegu. Dena den, nagusienari liburuak ere ematen dizkiogu.



Jesus Cimiano
(irakaslea)

Bai, egiten ditut. Seme nagusiak ditut eta erregali erabilgarriak oparitzen dizkiet.



Antonia Pacho
(langilea)


Bai. Hurrei jostailu edukatiboak oparitzea atsegin dut. Pertsona helduei falta egiten duten gauzak, arropa edota etxerako tresnak.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9

ESKORIATZA-Arana, 13



INFORMATIKA AKADEMIA

- 🍏 Ikastaroaren iraupena: 30 ordu
- 🍏 Talde murriztuak, gehienez lau ikasle
- 🍏 Oso klase praktikoak

AUSART ZAITEZ!!!

Dr. Bañez 13an gaude (San Andres)
Tfnoa: 79 18 08 ARRASATE

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas (Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

“Ameriketako aurkikuntzaren ondorioz sortutako egoera berriak lehen euskal historigilea ekarri zuen, gerora Euskal Herriaren historia ikertzen eta bere iturburu eta bere hizkuntzaren izakera berezia azaltzen ahaleginduko zen lehena. Esteban de Garibai, Arrasatearra, izan zen 1571n bere “Compendio Historial”eko lau bolumenak argitaratu zituen.

Garibai genealogile bikaina zen, eta argitaratu ez zituen liburu eta eskuizkribuek adierazi eta testigatu bezala, bere obraren zatirik handiena erregeen genealogi zuhaitzak osatzen erabili zuen, sultan otomanoak barne; hauek Espainiarekin erlazioren bat zutela esaten zen. Aldi berean, gai hauek ihardun zuen, harmarri, elizetako kontseilu, Espainiako martiri, Espainiako gizon jakintsu eta “beste gauza bikain batzuek”. Antzinako historigileen ahotan zebilen teoriarekin bat zegoen; honen arabera Penintsula Iberikoan Tubalen ondorengoak bizi izan ziren, Jafet-en semeetako bat, Noe-ren semea. Baina leienda hori hankaz gora jarri zuen, euskal lurraldeak (Garibaik Kantabria deitua) Tubalen kokalekuak zirela adieraziz.

Tesi hau euskal toponimiaren zenbait elementuz eta Biblian Armeniarekin, arka atsedena hartzen zegoen lekua, bat egiten dutenak zerikusia zutela “demostratu” zuen. Berau, zioen, Tubalek sorlekua oso maite zuelako zen, horregatik Tubalek Espainiako kokaleku berrietan bere toponimia erabiltzearena. Besteak beste, adibide hauek: Garibaik Gorbeia Mendia aipatzen zuen, Armenian, Araba eta Bizkaia mugetan dagoen Borbeia Mendia, eta Arakes erreka, Nafarroako Araika. Bere argudioetatik zentzugabeena, agian, bere Arrasatek hurrean errota-leku bat dagoenarena izan zen, Babilonia izenekoa.

Guzti honengatik Garibaik euskal hizkuntzaren iturburuak Tubalen hizkuntzan kokatu zituen, munduko lehenengo hizkuntzat hartu zuen, Dilubioa gertatuz geroztik, Nafarroa eta Kantabria penintsulako lehen lurraldeak zirela baieztatuz.

Gipuzkoa eta Bizkaiko marinela (arrantzaleak) arazorik gabe jarri ziren harremanetan indioekin, eta hauek, eskolatubakoak ziren arren, euskara ikasteko gai izan ziren egundoko erraztasunarekin”.

(Roger Collins historialariak “Los Vascos” liburuan)

Zer nolako arrakasta izan du Arartekoaren figurak Euskal Herrian?



Beno, nik uste arrakasta euki izan duela. Kontutan hartuz Arartekoari aurkeztu zaizkion kexa edo erreklamazioak administrazioaren aurka eginak direla, amaitzeaz dagoen urtean heldu zaizkigun 600 inguru kasuek garbi erakusten dute jendea gure lana ezagutzen hasia dela.

Gainera, oraindik ere gure oinarriak ondo finkatzen dihardugu. Alde horretatik zera esan nahiko nuke, hasieratik saiatu naizela kolaboratzaile, laguntzaile egokiak aurkitzen. Funtzionario mailan ere jende aproposa sartu nahi izan dugu, eta gutxika-gutxika nabaritzen dugu prozesuak arinago bihurtzen ari direla, azkarrago.

Erreklamazioak mota guztietakoak izaten dira. Batzuk laburrak eta oso onak; beste batzuk, ordea, luzeak eta ia zentzurik gabekoak...

Prozesuek ere bukaera ezberdinak izaten dituzte, noski. Batzuk segituan baztertzeko ditugu, adibidez informazio edo mamirik gabe heltzen direlako. Beste batzuk hasieran onartu, baina ikerketak egiterakoan datu berriak aurkitu eta atzera botatzen ditugu. Bukatzeko, badaude guztiz onartzen diren erreklamazioak ere, nahiz eta hau portzentaia txikian gertatu.

Juan San Martín
Euskal Herriko Arartekoa eta Euskaltzaindiako partaide

BENGOA

USAINDEGIA BITXITEGIA OPARIAK

Zerkaosteta 5, Tfnoa: 79 28 85
ARRASATE

KAJOI TABERNA


erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



BIONA



Zurgin Kantoi 2, Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina
Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114



Kabia

Altzariak


Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

**Felipe
Arrizabalaga**

aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**BRANKA
JATETXEA**

*Eguneko menua
eta karta*

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

**NABE INDUSTRIALEN
SALMENTA**

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

prentsaren begia

OSTIRALA 15

- CORREO:** "Bigarren urtea jarraian Arrasaten kontribuzioaren zuzeneko gestio bidezko kobruak %95eko kuota gaindituko"
DEIA: "Monterronen fosil-kolekzio baliotsua erakutsi"
DV: "Iokin Zaitegi omentzeko Pleno Berezia, bere heriotzaren X. Urteurrenean"
EGIN: "Gestoraren taberna gaur zabalduko datorren urtarrilaren 7a arte".

LARUNBATA 16

- CORREO:** "Arrasateko Goikobalu abesbatzak gaur debutatuko Ordizian eta abenduaren 23an aurkeztuko herrian"
DEIA: "Gaur Santo Tomas txapelketako finalak"
DV: "Goikobalu abesbatza: dena prest aurkezpen ofiziala 23an egiteko"
EGIN: "Goikobalu abesbatzaren aurkezpena, harrobiko abesbatza 78 ahotsez osatua"

IGANDEA 17

- CORREO:** "Monterron jauregian Iokin Zaitegi idazle arrasatearraren obrak hartuko dituen liburutegia inauguratu"
DV: "Santamasak 89 jaietan: Mondraren ereserkia eta kuadrilen arteko Krossa"
EGIN: "Plenoan Iokin Zaitegiri kale bat izendatzea eta euskararen erabilpena indartzea onartu"

ASTELEHENA 18

- CORREO:** "Arrasateko emakumeen asanbladaren kritikak jostailuen sexismoari"

ASTEARTEA 19

- CORREO:** "Osasun-sailburuak Arrasate bisita lezake Gabon ostean a lkatearekin biltzeko"
DEIA: "Mondragon F.T.ak dagoeneko badu ereserkia"
DV: "Mondragon Futbol Taldearen ereserkiaren aurkezpenak sekulako arrakasta"
EGIN: "Ostegunean, AED Elkartek antolaturiko lehiaketa ezberdinen sari banaketa"

ASTEAZKENA 20

- CORREO:** "Arrasateko 60 familiak baino gehiagok laguntzak jaso aurten pobretasunaren aurkako planaren barruan"
DEIA: "Jesus Narvaezen fosil-kolekzioak ikusmin handia sortu"
DV: "Bihar argitara emango AEDk deitutako lehiaketen emaitzak"
EGIN: "UCEMeko langileen asanbladak enpresa eta ELAren iharduketa salatu"

Usteak uste...

Joan den ostiraleko udal plenoak, onartu zuen hitzarmenak emango du zeresanik franko, sinatuko duten Mondragoeko erakunde desberdinen artean aplikatzen hasten denean. Akordio horri esker euskara administrazio eta enpresaren mundu ia guztiz erdaldunetan sartzen hasiko da. Lan munduan zabalitzen hasteko pauso garrantzitsua.

Arrasate bisitatu zuten euskaltzainek ere behin eta berriro goraiatu zuten hitzarmena, haien hitzetan Euskal Herriko leku askotan aplikagarria. Txalo berroak Arrasateko Udalari eta beronekin batera laster akordio bera izenpetuko duten erakunde guztiak.

Merkatuaren inguruan dauden asmoek ere zeresan ugari eman dezaketela dirudi, inoiz ez bait du denon gustora euririk egiten, ez horixe, garai hauetan batipat. Urkuluri esker ez dugu ur-mozketarik ezagutzerik izan, oraingoz behintzat, eta hori eskertzekoa da. Bitartean Euskal Herrian zehar suteak areagotu dituzten haizeek gure inguruan ere eragin zuten zenbait deskalabru, Elgeta eta Aretxabaleta aldean.

Erre usainarekin batera, Gabon usainak ere hartzen hasiak gara, Santo Tomasak gainean ditugun honetan. Urruti daudenak ere gogoratuz ondo pasau eta Eguberri zoriontsuak izan.

Joxe Aranzabal



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
 Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE

ARFEGA
Pinturak, opariak
eta jostalluak
 Erguln 10, ARRASATE

Zorionak, Iñaki

Aurtengo "Cafe Iruña" Sariaren irabazlea

Pasa den asteazkenean, abenduak 13, pozez zorutzen jaso genuen Iñaki Mendigurenek *Cafe Iruña* nobela laburren saria irabazi duela-ko albistea. Bere lana, *Altzak badu bihotzik*.

Iñaki Mendiguren orain 35 urte jaio zen Ezkion, baina izan ere bihotzez arrasatearra dugu. Euskara eta euskal literatura irakasle ohia EPPn, Almenen eta Eskoriatzako Irakasle Eskolan. *Elkar* argitaletxearen *Irakurmendi* saileko zuzendari eta koordinatzailea. Itzulpen arloan lan ikaragarria egin duen gizona, bai administrazio mailan eta bai beste alorretan ere (dagoeneko *Itun Berria* itzulia du, beste hainbat



jenderekin batera eta gaur egun *Itun zaharrarekin* dihardute).

Orain sartu berria dugu nobelagintzan, *Altzak badu bihotzik* obrarekin, non irakasle eta ikasle baten arteko harreman homosexualak kontatzen zaizkigun. Dena den, bi hilabete barru izango dugu nobela liburategietan eskuratzeko aukera.

Rock jaialdia

Larunbatean *Santamas* jaien egitarauaren barne izango duguna, Musakolako kiroldegian, gaueko 10,30etan hasita. Bertan egongo diren taldeak *Zarama*, *M-ak* eta *Hertzainak* (Gasteiztarrak beraien azken diska aurkeztuz, *Amets Prefabrikatuak* izenekoa).

Arte hamabostaldia

Irailean antolatutako Arte hamabostaldiaren emaitzekin erakusketa berezia izango dugu Kondekuan, abenduaren 20an hasi eta 7 arte. Hamabostaldian zehar hamazazpi artistak egindako grabatu, oleo, argazki, zeramika, bideo... eta baita partaideak egindako katalogoa ere aurkituko ahal izango ditugu bertan.

Erakusketa bukatu eta gero, lan guztiak Udalak eskuratuko ditu.



Euskal Hitz Oñatin

Pasa den ostiralean, abenduak 15, hasi eta hilaren 30era arte Euskal Hitz erakusketa izango dugu ikusgai Oñatiko Kultur Etxean. Inaugurazioan, Mari Carmen Garmendia, Eli Galdos eta Udaleko zenbait ordezkaririk izan genituen hizlari. Gogoratu Euskal Hitz erakusketa *Kultur bideetan* egitarauaren barne sartua dagoela, eta dagoeneko hainbat herritan ikusi ahal izan dutela.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Arrasateko jattetxea

Olarte kantola 3,
Tfnoa: 79 84 53



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofiseta
Ferrerías 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Bake epaitegia

Legearen aginduz, abenduaren 28an, orain arte Barruti-epaitegiak izan direnak Bake-epaitegi bihurtuko dira (nolabait esateko, kategoria txikiagoak).

Horrek aldaketa batzuk suposatuko ditu funtzionamenduaren aldetik. Arrasaten orain arte egon den Barruti-epaitegia Justizia sailaren kontura egon bada ere, 28tik aurrera Barne-epaitegi berriaren ardura

(lokalak, kostua, etab.) Udalari dagokio.

Justizia saila, izan ere, prest legoke Ignacio Zuloaga kaleko solairu-artekoa uzteko, baina egoitza hura abilitatzeko lanak Udalaren kontu geldifuko dira (funtzionamenduak sortzen dituen gastuak ere bere gain hartu beharko dituelarik).

Dena den, esan behar Udalak erabaki garrantzitsua hartu zuela azken plenoan, ez delako konforma-

tzen Bake-epaitegi batekin. Alderdien ustez Arrasateri gutxienez lehen instrukziozko epaitegia dago, eta aipatutako pleno horretan Justizia sailari eskaera hori luzatzea erabaki zuten.

Kontuak kontu, momentuz behintzat, Ignazio Zuloagan kokatuko den Barne-epaitegiaren lanei ekingo diete; eta gogoratu Bake-epailea, gaur egun barruti epailea den Begoña Mujika izango dugula.



ASEGURU ARTEKARIA
Zure esanetara gauzkazku!

Maalako Errabala 33, Etxabea.
 Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE



Goikobalu abesbatza

Abenduaren 23an aurkeztuko parrokian

Zenbait musikazale arrasatearrek aspaldi sentitzen zuen abesbatza baten falta herrian. SDUC elkarteak urte honen hasieran sentimentu horiek jaso eta korala sortzeko lehen proposamenak egin zituenean, berehala konturatu ziren herrian benetako egarria zegoela. Segituan 78 pertsona bildu zituzten, batz bestea 25 urtekoak, eta lanean hasi Luis Ignacio Perez de Villarreal donostiarraren zuzendaritzapean.

Maiatzean ekin zieten entsaguetan, abate txean gehienak. Saio gogorak,

askotan igandeetan eta guzti, baina halere parte-hartzeak berdin jarraitu du. Goi mailako espezialistak ekarri dituzte mintzaira korala etab. lantzeko. Kanpora ere irten behar izan dira ikastaroak hartzera.

Joan den 16an, larunbata, Ordizian egin zuten aurre-aurkezpena. 23an, berriz, arratsaldeko zortzietan Mondragoeko parrokian izango dugu Goikobalu abesbatza (izena Santa Barbaran dauden jariekueetatik hartu dute). Arrasateko herriak emango al dio merezi duen harrera!

■ Euskal liburu eta disko azoka 1989

Abenduaren 21etik 24era, Franziskotarren aretoan Euskal liburu eta disko azoka izango dugu ikusgai. Abenduaren 21ean, 6,30etatik 9etara. Abenduaren 22 eta 23an, goizean 11etatik 2etara eta arratsaldean 5,30etatik 9etara. Abenduaren 24ean, berriz, goizean 11tik 2etara eta arratsaldean 5,30etatik 7,30etara.

Egun hauetan ere, hainbat ekintza burutuko dira haurrentzat. Alde batetik sormen literarioaren tailerra, erdi eta goiko zikloetako haurrentzat, Mariasun Zubiaren eskutik. Bestetik, Lourdes Intxaustik Ipuinak kontatuko dizkie haur txikiei.

23an ere, larunbata, goizeko 11,30etatik 2ak arte, Pello Añorga idazleak eta Unai Iturriaga ilustratzaileak Poemak sortuko dituzte adin guztietako haurren laguntzarekin.

Ekintza guzti hauen antolatzaileak AED elkarteak izan dugu, Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean. Prestatzaileak, berriz, Eskoritzako Irakasle Eskolako Haur liburu mintegia.

Jaiotzak

Gomez Rivera *Aitor*,
abenduaren 12an

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
jantzirik onenen aukera zabalena*

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97



Sebero Altube Beka

Euskeraren Ikerketa Linguistikoa egiteko

Arrasateko Udalak sortu berria du Sebero Altube beka Euskara Batzordearen eskutik; beka honen helburua, Arrasateko euskararen ikerketa linguistiko globala egitea litzateke, honako arlo hauek jorratu nahi direlarik:

— Arrasateko euskararen "corpusa", ahozko euskara jaso beharko da (Euskaltzaindiaren erizpideen arauera).

— Aditza, deklinabidea, fonetika, esakera eta esaera zaharrak jaso.

— Arrasateko euskaraz idatzita dauden testuen zerrendaketa egin.

Lana burutzeko epea hamalau hilabetekoa izango da, 700.000 pta.ko diru laguntza emango delarik.

Epaimahaia asteartean bildu zen (Alkatea, Euskara Batzordeburua, Euskaltzaindiaren ordezkari bi, Euskara Zerbitziburua eta Idazkaria). Bost hautagai aurkeztu ziren beka lortzeko, eta azkenean ikerketa linguistikoa Jerardo Elortzaren esku ustea erabaki zen.

Astialdiko Monitore Ikastaroa

Urtarrilean erdialdera hasi eta Maiatzerarte luzatuko dira AED Elkarteak antolatu dituen Astialdiko Monitore Ikastaroak. Ikastarootan denbora libre edo astialdiko begirale izateko prestakuntza emango da, amaieran titulua eskura daitekeelarik.

Bi aukera parte hartu ahal izateko; bata astebaruan - astearte, asteazken eta osteguneguz - iluntzeko seietatik aurrera, eta bestea asteburukoa, ostiral iluntzean eta larunbata egun osoan zehar gauzatu dena. Matrikula epea urtarrilaren 5ean amaitzen da, eta ondorioz interesatuek lehenbailehen jo beharko dute AEDren egoitzara (Pablo Uranga 4-behea) berori gauzatzera.

Baldintza bakarra 18 urte bete- ta izatea da. Informazio gehiago, 79 54 46 ifnoan.



INTERSPORT®

Ski set

89/90

Ski (hainbat elementu bota barne)
Ski Rossinol V-461
Salomon 447 finkapena
TECNO-pro Star makila
TECNO-pro TPS-595 bota

26.500,-

LORAMENDI

KIROLAK

INTERSPORT

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea, Arrasate

Kontzesifno 2,
Tfnoa: 79 14 08
ARRASATE



Iazko sariketen irabazleak

Arrasate 89 lehiaketak

Ostegunean, 7etan, sari-banaketa Monterronen

Udaberri honetan AED Elkar-teak, Arrasateko Udalaren eta Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntzaz, euskal kultura sustatzeko asmoz hainbat lehiaketa antolatutuz, lanak entregatzeko epea azaroaren leian bukatu zelarik.

Lanak epaitzeko bost epaimahai ezberdin eratu dira, eta hauek dagoneko jakin erazi dituzte sarituak izan direnen izenak. Abenduaren 21ean, Monterroneko hitzaldi-aretoan, arratsaldeko 7etan izango den Sari-banaketa bakoitzak zein sari

jasoko duen jakingo duelarik.

— Iokin Zaitegi itzulpenak

Epaimahaia: Jesus Garmendia, Kike Amunarriz, Tere Zaro, Miren Bengoa, Joxe Aranzabal eta Xabier Mendiguren.

Sarituak: Koldo Rodriguez, Txipi Ormaetxea, Andoni Sagama eta Iñaki Gauna.

— Ipuina

Epaimahaia: Iñaki Mendiguren, Arantza Berezibar, Mari Asun Zubia, Karmelo Uribarren eta Gerardo Markuleta.

Sarituak: Iñaki Alonso, Juan Luis Lopez eta Anuska Lasa.

— Gazte-mailan (18 urte arte): Mikel Santiago, Iñaki Iturbe, Mirian Altube, Jon Ander Madina, Jaione Osoro, Ibane Abasolo, Elisabeth Lopez de Vergara, Itziar Isazelaia eta Inma Cabero.

— Poesia

Epaimahaia: Aitor Antxia eta Mari Asun Zubia.

Sarituak: Gerardo Markuleta.

— Gazte-mailan: Alaitz Arroia-be, Xabier Aranburu, Ainhoa Oian-guren eta Mikel Bengoa.

— Bertso-Paperak

Epaimahaia: Jon Sarasua eta Juanito Saizar.

Sarituak: Patxi Goikolea eta Markel Arizmendi.

— Gazte-mailan: Maite Retolaza, Iñigo Iñurrategi, Amaia Agiriano, "Txipiroi taldea", Agurtzane Iñurrategi eta Aritz Berasaluze.

— Bideoa

Epaimahaia: "Pedro Luis" eta Imanol Zubizarreta.

Sarituak: Ez da saririk eman.

— Argazkia

Epaimahaia: "Pedro Luis" eta Imanol Zubizarreta

Sarituak: Jon Ozaeta, R. Mendi, Iñaki Brufia eta Jabier Ozaeta.

— Komikia

Epaimahaia: "Pedro Luis" eta Imanol Zubizarreta.

Sarituak: Alberto Eguzkiza, Mario Egues eta Karmelo Oñate.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

MTAR



ALTZARIAK
Matxiategi poligonoa
Tfnoa: 76 16 53
Bergara



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Euskara sustatzeko hitzarmena

Udalak ostiraleko plenoan onartu, PSOEek ezik

Pasa den ostiralean, Jokin Zaitegi omentzeko egindako plenoan, Euskara Batzordeak proposamen berezia luzatu zion Arrasateko Udalari. Proposamen horretan, herriko hainbat ikastola eta elkarteri, lan arloan eta profesionalean euskararen erabilpena areagotzeko hitzarmen bat sinatzea eskatzen zen.

Gaiak ez zuen aparteko eztabaidarik sortu alderdi politikoen artean. Bitxikeria PSOEren eskutik etorri zen. Azken bi hilabeteotan Euskara Batzordearen bileratara azaldu ez direnak, momentuko protagonismoa lortu nahi izan zuten, atsedenaldia eskatuz proposamenaren diktamena erdaraz jaso ez zutelako. Atsedenaldia eta gero, halere, HBk, PNVk, EAK eta EEK aho batez onartu zuten hitzarmena sinatzea. PSOE ez zen botazioan sartu.

Hitzarmena

Hitzarmenean, besteak beste, honako elkarte eta erakunde hauek hartuko dute parte: Udalak, Deba Garai Udal-Elkarteak, AEDk, S. Frantzisko Xabier Ikastolak, S. Biator ikastolak, Umezaintzak, EPPk eta AZK Publizitate enpresak.

Aipaturiko entitateen elkarren arteko harremanak, ahoz nahiz idatzizkoak, beti euskaraz izango dira.



Aurpegi ezagun asko ostiraleko plenoan

Entitate bakoitzeko ordezkapen-organotako kideak euskaraz lan egiteko gaitasuna dutenak izan daitezzen ahalegina egingo da, beren harremanetan euskararen erabilpena oztopa ez dezaten.

Entitate bakoitzeko zuzendaritza-organoen aktak euskeraz idatziko dira preferenteki, eta era berean, entitateekiko arazoei buruzko espedienteak oso-osorik euskaraz tramitatuko ditu entitate bakoitzak.

Konpromisu hauek, hasteko, hiru urtetarako hartzen dira. Denboraldi

horretan, elkarturiko entitate bakoitzak behar dituen oinarritzko testu, estatutu, funtzionamendu-arau, kontratu, poliza edo beste dokumentu tekniko batzuk euskaratzearen ondoriozko kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du.

Bukatzeko, esan hitzarmen honen jarraipenaz arduratuko den teknikari berriaren kontratazioaz Udala arduratuko dela, hiru urteko eperako. Hitzarmena, gainera, irekia dago parte hartu nahi duen beste edozein entitaterentzat.


INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxa: 798411 ARRASATE

Otalora 2, ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



Goizean goiz agertu ziren Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren partaideak Arrasaten. Hamar t'erdietan goizeko bilerari ekin zioten. Honako hauek dira Zuzendaritza osatzen dutenak: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Juan Mari Lekuona, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Jose Mari Satrustegi. Arratsaldez berriro bildu ziren, arratsaldeko seiak arte.

.....

Arrasateko Udalak Jokin Zaitegiri eskainitako pleno berezian herriko zenbait erakunderen artean euskararen erabilpena bultzatzeko onartu zen hitzarmenak guztiz sorpresaz harrapatu zituen euskaltzainak. Ez zuten horrelakorik espero, eta iluntzean J. A. Arana Martijak esan zuen bezala, eredugarritzat jotzen dute beste herri askotarako.


Urtarrilean Euskaltzaindiak espezialista talde bat bidaliko du Mondragoera Jose Letonaren artxiboa katalogatzera. Hainbeste atzeratu den asmo hau badirudi azkenean beteko dela.

.....

Plenoaren bitxikeria PSOEek jarri zuen. Gutxienez bi hilabete darimate Euskera Batzordean- hitzarmenaren proposatzailea- agertu barik, eta botazioa heldu zenean kontu zorrotzak eskatu zizkioten Pedro Uraini diktamena erdaraz ere heldu ez zitzaielako. Atsedenaldea eta guzti eskatu zuten hitzarmenaren testua aztertzeke, denek aho batez



onartu ondoren eurak ez zirela botazioan sartuko iragartzeko. Nork ulertu?



Euskaltzaindiko zuzendaritzak interes biziz jaso zituen LAKaren marketing sailak Arrasate Pressi buruz egin duen sondeoarene bi ale. Bazkalorduan, Brankan, informazio gehiago eskatu zuten aldizkariari buruz.

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25

TITARE


LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

Bazkalostean Jose Antonio Arana Martija kanposantura joan zen, Juan Carlos Gerraren hilobia bisitatzera. Pleno ostean Jose Antoniok berak iragarri zigunez, laster argitaratuko da Juan Carlos Gerraren biografia.

• • • • •

Piarres Xarriton galdu samar aurkitu genuen, ez bait zekien Montteron non zegoen. Bera ez da zuzendaritzakoa, baina Haritschelharrekin biltzera etorri zen. Erabat txundituta gelditu zen Arrasate Pressen berri zehatza izan zuenean. Hurrengo Herriaren alean horri buruz idatziko zuela agindu zigun.



Jende asko bildu zen plenora. Jokin beraren iloba, Aita Luis Villasante, eta baita Juanito San Martin ere (euskaltzaina eta Euskadiko arartekoa). Berak hitz egin zuen plenoan Euskaltzaindiaren izenean, Platon, Sokrates eta Jokinek itzultitako hainbat klasiko greziar aipatuz.

• • • • •

Jokin Zaitegiri eskaintako liburugelaren aldamenean, egunotan Jesus Narvaezen fosil erakusketa dugu ikusgai. Euskaltzainek ere ez zuten galdu aintzinako aztarna bitxi hauek ezagutzeko aukera.

• • • • •

Lau egun beranduago, astear-tean, hemen izan genituen Aita Luis Villasante eta Gotzon Aurrekoetxea (Euskal Herriko Atlas Linguistikoa-ren egilea), Sebero Altube beka nori eman erabakiko zuen epaimahaian parte hartzera.



Plenoaren ostean hainbat zinegotzi, alkatea bera eta plenoan parte hartu zuten euskaltzainak Jokin Zaitegiri eskaintako liburugela inaguratzera hurbildu ziren. Aurrerantzean, bertan aurkitu ahal izango ditugu Jokinek itzultitako eta bere bizitzan zehar bildutako hainbat eta hainbat liburu.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**TABIRA
DIETETIKA**
Kosmetika eta produktu
naturalak
Estetislena
Munar 8, ARRASATE

Eskoletan zer? Sexismorik ez

Gaingan ditugun egunak (Olentzero, erregeak,...) kontutan izanik eta Arrasateko Emakumeen Asanbladak aurrera daraman "Eskoletan zer?: Sexismorik ez!" kanpaina barruan, jolasak, jostailuak,... direla eta ez direla, kontutan hartu beharra daukagun hainbat gauza aipatu nahi genizuke.

Makina bat bider umeentzako jolasak duen garrantziaz mintzatu izan gara, suposatzen duen plazerretik aparte beste arlo batzuk ere bultzatzen dituela gogoratuz, hots, garapen fisiko, mentala, soziala eta emozionala.

Guk geuk, eragin orokor eta zabal hau inondik inora bazterturik, nortasunaren egituraren parte hartze handiari indarra emango diogu gaur.

Dakigunez, haurra jolasteko bizi da eta era berean bizitzeko jolasten du. Beraz, era inkonsziente honen bidez, pentsamolde, baloreak,... berberatzen ditu, azken finean izateko era bat ikasten doalarik.

Sexua kontutan harturik, jolas eta jostailuen zatiketa egiten jarraitzen badugu gizarte patriarkal honi komeni zaizkion eskema berberak errepikatzen ariko gara: mutil aktibo eta berekoiak; hauei begira bizi diren iniziatiba gabeko neskek.

Heziketa integrala eta ez generoan oinarritua defendatzen badugu, joku eta jolasen proposamena aberatsa izan behar da eta inongo ikuspegitik sexuak baldintzaturik.

Ez badugu hain asumitua daukagun "neska batentzat da!", "mutikoa da!",... topikotik ihes egiten, edo eta umearen nortasuna kontutan izanik



Agurtzane Ugalde *

gabe zintzilikatu zaion generoa determinantetzat hartzen badugu, jolas bat beste baten ordezkain-terakoan haurraren afektibitate eta ondorioz bere nortasunaren konponente handi eta garrantzitsu bat ukatzen ari gara.

Jolas bat ez da berez neska edo mutikoentzat egokiagoa. Aukeratzeko unean jolasa berak duen baliogarratasunean finkatu beharko ginatke. Honeaz loturik eta ondorio eran, zera azpimarratu nahi dugu: neska-jolastzat hartu izan direnek mutikoen mundu afektiboa aberasten laguntzen dute; era berean, mutikoentzat gorde direnek espazioaren erabilera zabalagoa suposatzen dutenez, neskatoaren autoafirmazioa eta ondorengo autonomia posibilitatzen dute maskulino eta femenino kutsu diskriminatzaile horiek gaindituz.

Orain arte aztertu izan dugun guzti honetaz badu telebistak parte hartze handia. Beraz, gauza bat gehiagoz pentsatu nahi dugu. Komenigarria ikusten dugu sentidu honetan TBk duen izaera determinantea seinatzea.

Helduen eritzi orokorrean telebista irakasgarria eta neurri handi batean etxeko giroaren lasaigarria da. Tamalez, haurrak bere inguruarekin jolasten ikasi behar duela eta ez telebistaren pasibitateaz, ixiltasunaz eta mugiezina-ekin, ahazten dugu.

Hortik aparte TBa ez da mezu sexista eta diskriminatzailetik at geratzen, iragarkietan ematen diren egoeretatik, haurrak lehen aipatutako maskulino-femenino estereotipoak normaltzat har ditzaten bultzatzen du.

(* Emakume Asanbladaren partaidea)

Aitor Aranarentzat aurtengo Bapore saria

Arrasate Press inprimatzen duen *Gertu* inprimategiko langilea, Aitor Arana legazpiarrak irabazi du aurtengo Bapore saria, (400.000 pta.rekin batera). *SM* argitaletxeak 13 urtetik gora koentzat ateratzen duen bildumaren saria hain zuzen, *Loaren bidez* nobelarekin.

Orain Araotzeko abadetxean bizi den Aitorrek *Hots* aldizkarian eman zituen bere lehen pausak literaturan. 1985ean Bilintx saria irabazi zuen *Azkonarren laguna* nobelarekin. Beste behin ere hirugarren izan zen Joxerra Gartzia irabazi zuenean, Bapore sarian. Brontzetik urrera eskuratzea, hori duk marka, hori. Eutsi goiari, Aitor!

■ Zabor bilketa

Deba Garaiko Udal Elkarteak jakin erazi digunez, abenduaren 24 eta 31 egunetako zabor bilketa aldatu behar da, Gabonetako jaiak direlako. Hauen ordezkabenduaren 23 eta 30ean egingo da zabor bilketa.

Landaluze urdaitegia

Espezialitateak:

Urdaiazpikoa
Iberikoa
Ahate-gaiak

Foie
Confit
Bloc

Serranoa
Paletilla
JATETXETARAKO SALMENTA

Magret
Pate

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE




1974ean gertatu zen. Hogeitalau bazkide bota egin zituzten Fagor taldeko zenbait kooperatibatatik. Egun latz haien hamaboskarren urtemuga bete denean, haietako gehienak Bergarako Arane jabetxean elkartu ziren lehendabiziko aldiz. Hunkipena eta alaitasuna izan ziren nagusi afarian zehar.



Epele

Dorletako amaren eleizan ezkondu ziren M. Jesus Fernandez Arroiabe eta Alberto Axpe. Mexikora egin zuten eztei-bidaia, eta ondoren eguneroko bizitzan murgildu. Zorionak!

Santamasak heldu dira aurten ere, jai-giroan, eta herriko txikienek ere seguraski gustoz itxarongo dute barraketan ibiltzeko txanda. Aitak edo amak, noski, sosak jarri behar!



Izen propioak

■ Luis Ignacio Perez de Villareal, 34, ama arrasatearra (Maria Luisa Madariaga) duen ekonomista donostiarra da *Goikobalu* abesbatza berriaren zuzendaria. Eusko Jaurlaritzan egiten du lan, Lan sailan hain zuzen. Donostiako Orfeoian kantatzen du eta Eskoriatzako Gorosarri koralaren zuzendaria izan da bost urtez. Musikari dagokionez, erabat autodidakta da.

■ Imanol Zubizarreta, 31, zinegotzi eskoriatzarrak urtebeteko eszedentzia hartuko du Musakolako LKAN, Eskoriatzako telebistan (*Telesko*) lan egiteko. Enpresa Zientziak ikasi zituen ETEOn, hamahiru urte badira LKAN sartu zenetik, eta Teleskon ere lau urte t'erdi egin ditu, sortu zenetik alegia. Aldaketa honen helburua Teleskori azpiegitura eta programazio egonkorrak ematea da.

■ Nerea Maruri, 24, arrasatearrak Eusko oiloaren hobekuntza ikeritzeko beka jaso du Eusko Jaurlaritzatik. Nerea albaiteroa da, Zaragozan ikasia. Gaur egun granjen produkzioa ari da aztertzen.

■ Jose Antonio Azurmendi, 50, EAJko zinegotzi mondragoetarrak utzi egingo dio kontseilari orokor izateari Arrasateko Udalaren izenean Gipuzkoako Kutxaren Bazarre Nagusian, non Mondragoeri bi ordezkari izatea tokatzen zaion. Zortzi hilabetez bete du kargua eta Udalak hala baderitzo berraukeratua izan daiteke.



ARRASATE KRISTALDEGIA
Badakizu zer egiten dugun kristalarekin?
Hori eta gehiago

Nafarroa Etorbidea 25, etxabehea. Tfnoa: 79 71 98 ARRASATE

Merkatua isteko zorian

Udalak kontzezioak ez berritzea onartu

Joan den asteko egunkarietan Udalak Arrasateko Merkatura kentzeko erabakia hartu zuela irakurri genuen. Bat baino gehiago ustekabeen harrapatuko zuen berriak, arrasatearrok betidanik ezagutu dugun leku hau desagertzeko bidean dago eta. Arrasatekoa ez da desagertuko den lehen merkatura; beste zenbait herritan ere, gaur egun bizimoduak izan duen bilakaera kontutan izanik, merkatura kentzea erabaki da eta. Edonola ere, pentsatzekoa denez, merkaturaren beren bizimodua duten pertsonak ez dute begi onez erabaki hau ikusi eta etorkizunerako zein neurri hartu erabakitzen ari dira.

Edonola ere, baserritarrek beren produktuak saltzen segitu ahal izateko kokagune irekia bilatzen ari da Udalak. Azoka berri horretan baserritarrek bakarrik saldu ahal izango dituzte elikagaiak. Udalak honela azokaren ohitura zaharrari eutsi nahi dio.

Harridura merkatarien artean

Azokako dendariak adierazi ditudenez, harriduraz hartu dute berria, ez bait zuten uste merkatura itxiko zenik. Merkaturak eskasia batzuk badituela onartzen dute, baina Udalak berau konponduko zuelakoan zeuden

"Gauzak ez ditugu horrela utziko, komisio bat egitea pentsatu dugu eta Udalera joko dugu gauzak konpon daitezkeen ikustera". Merkatarien ustez, erabaki hau lehenago hartu beharra zegoen. Orain dela bi urte gutuna bidali omen zitzaion Udalarari merkaturaren etorkizuna zein izango zen jakin asmoz. Une hartan, ikerketa burutu behar zuela eta, ezer ezin esan zieziaieketela adierazi omen zitzairen. Merkatarien ustetan orain hiru edo lau urte abisatu izan balitzaie etorkizunerako zer egin pentsatzeko aukera izango zuketuen. Orain, oster, urtebete eskas falta



Ostiral eta asteazkenetan joaten da jende gehien

Kontzezioak amaituta

Ferialeko merkatu berria egin zenean, 20 urtetan merkaturaren postua izateko baimena eman zitzairen dendariei. Merkatura 1971. urteko urrian ireki zenez, 1991an bukatzen zaie ghienei postua izateko aukera. 1971. urtearen ondoren postua hartu zutenei, aldiz, datorren urtearen amaieran amaitzen zaie baimena.

Udalak, beraz, eraiki bat hartu beharra zuen, kontzesioak luzatu, merkatu berria egin, dagoena konpondu, etab. Erabakia hartzerakoan herriaren beharrak zeintzuk diren, merkaturaren egoera zehatza zein den, etab. jakiteko IKEI enpresari ikerketa eskatu zion. Ikerketaren ondorioak esku artean, joan den as-

tean merkatura istearen alde agertu zen. Erabaki hau ez da behin betikoa, Udalak oraingoan bere eritzia agertu baino ez du egin. Beraz,

Arrasatek, herritarren erosketa ohiturak ikusita, gaur egun azokarik ez duela behar erabaki du Udalak

kontzesioak bukatzen direnean merkatura itxitzat emango da. Udalak oraingo honetan merkaturaren etorkizuna erabakitzeko urrezko aukera zela ikusi du eta gero eta arrasatear gutxiago bertara joaten dela ikusirik kontzesiorik ez berritzea eta, beraz, merkatura istea erabaki du.

denean, ezer barik geratzen dira.

Hala ere, ezer gabe geratzen direnak ez dira guztiak izango, zenbait merkaturatik kanpo ere negozioa du eta.

Baserritarren artean eritzi ugari

Zenbait baserritarrekin ere egon

gara. Batzuen ustez beraientzat bakarrik azoka jarritz gero ez lukete orain beste salduko. "Ostiral edo asteazkenetan merkatura etortzen den jendea erosketa handia egitera etortzen da. Barazkiez gain, okela, arraina, etab. erosten du jendeak" zioen Marik. Kontxak berriz, "merkatua ezin da itxi eta akabo. Base-rritarrentzako azoka ez dut begi txarrez ikusten, Donostian Bretxako merkaturia halaxe dago aspalditik". Edonola ere, denak merkatuak sabaiak izan beharko duela uste dute. "Azoka berri horrek tejabana edo zerbait izan beharko luke, osterantzean neguan -aurtengoa bezalakoa eginez gero ez, baiña- ea nor etortzen den erostera edota saltzera"



Saltzaile ibiltariek erakartzen dute erosle ugari

IKEIren azterlana

Ikerketarako Euskal Instituoak, Arrasateko Udalaren aginduz, arrasatearren erosketa ohiturei eta Arrasateko merkatuaren egoerari buruzko ikerketa egin du. Ikerketa honekin batera, gaur egungo merkatuari etorkizunean zein alternatiba eman dakiokkeen aurkeztu du.

Ikerketaren arabera, arrasatearren errenta hobetzen doan neurrian erosketa ohiturak aldatzen ari dira; gero eta diru gutxiago eskainiz janariari eta gero eta gehiago aisialdi edota etxeko gastuei.

Erosketa ohiturak ere, gaur egungo bizimoduak dakartzan aldaketek moldatzen ari dira. Gaur, normala da etxean senar-emazteak, biak, lanean aritzea. Horren ondorioz, astean zehar behar izango duten jakien gehiengoa egun batean erosten dute, hau da, aste osorako erosketa nagusia egiten dute eta berauek egiteko nagusiki autozer-

bitzuak aukeratu.

Ikerketaren emaitzen arabera, arrasatearrak merkatuan erosteko ohitura galtzen ari dira. Horrela, %38,4a sarritan joan ohi da merkatura, %3a noizean behin eta %58,6a inoiz ez. Merkatuan gehien bat fruitu eta berdurak, arraultza eta hegaztiak, okelak eta arrainak erosten dituzte arrasatearrek, bertara astean behin hurbiltzen direlarik. Merkatua ez omen da gazteentzat erakargarri. Merkatura joaten den jendearengan zahartze prozesua ematen ari da. Ikerketaren arabera, merkaturia behera gaitzen ari da eta bertako iharduera saltzaile ibiltariei eta baserritarrei esker gordetzen da.

Ikerketak argitzen duenez, merkatuaren kokalekua ona da, bertara hurbiltzea oinez nahiz kotxez erreza izanik. Hala ere, ostiraletan, merkatu egunetan, aparkaleku arazo larria izaten da. Bestalde, kontutuan izatekoa da merkaturia etxebizitza bloke baten sotoan dagoela eraikita, egiturazko akats konpon ezin

batzuk dituelarik. Hala nola, ez dago egoki oreatzeko biderik, kanerrien ondorioz usain txarrak sortzen dira eta osasun eta higieenezko arazoak, arratoi etab. ak ditu. Bertako garbiketa nahiko eskasa da eta mantenuan ez da lan handirik egiten.

Merkatuaren eskaintza aztertzerakoan, merkaturia gaur egungo beharrei ez dela egokitu adierazten da, urdategi eta okela eskaintza larregizkoa izanik.

Ikerketak zenbait alternatiba eskaintzen dizkio gaur egungo merkatuari. Batetik merkatu berria eraikitzea, berau erdigunean kokatzea gomendatuz. Bestalde gaur egun dagoena konpontzekotan guztiz estaltzea gomendatzen du, sarrerak egokitzea eta egitura berria ematea.

Edonola ere, ikerketak gaur egun dagoena dagoenetan beste bost urtez eustea gomendatzen du, ondoren beharbada behin betiko isteko

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

Garnet, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZAIK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak

kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK


Zarugaide 40, Arrasate 79 13 78

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

Obea

SEGURITATEA
ZURE
ZERBITZURA

Mantenimendua
Berriztapena
Izogailu eta jasogailuen
muntala


**ESKA EZAZU
AURREKONTUA**

Bulego zentrala: Jose Luis Iñarra
P., 22 Tfnoa: 79 12 08
ARRASATE

ZABALA

Taberna, jatetxe eta ostatua

Labegarieta BERGARA Tfnoa: 76 20 07 eta 76 42 57



SANTAMASAK 1989


Baditugu berriro ere Santamas festak gure artean. Nekazal munduan jaiotako jai, zenbait urtetan galtzear egon ondoren berrindartuta dugu, eta gaur egun herriko festa nagusienetarikoen artean dago. Arrazoi ugari aurkituko dugu festaren gainbehera aztertzerakoan. Edonola ere, kooperatibek egun hau lan-egun bihurtutzean festari kolpe galanta eman ziotela ezin ukatu. Franco hil ondoren, herriko zenbait gazte Santo Tomas feriari aintzina izandako ospea eta handitasuna itzultzeko beharraz jabetu ziren eta horrela Udalarekin elkarlanean, -zenbait urtetan gazte eta Udalaren artean tirabirak egon badira ere- gaur eguneko festan bilakatzea lortu dute. Arrasate herri industrialia izan arren, ezin ahaztu beronek baserritar kulturaren dituen sustrai eta oinarriak. Beraz aurtengoan ere, aizkolari, harrijasotzaile, ganadu eta barazki artean beharbada askok ahaztuta edota ezagutu ez duen kulturaz jabetzeko aukera izango du.

Gabon zorientsuak igaro

TOYOTA

Galarza
Automobilak

Ibargarai 37, Tfnoa: 76 50 99 BERGARA



Agustin Ibarluzea "Txispas"

Santamas festen koordinatzailea

"Santamas festetan nagusiki gure herriko sustraien erakusketa egin nahi dugu. Era honetan baseritarrek beren txokoa dute barazki eta fruitu ferian eta ganadu lehiaketan. Gizonaren lana, galterza doazen lanbideak ere erakustera ematen dugu artisauen lanen bidez. Eta ezin ahaztekoak dira kirolak, bai herri kirolak aizkolari eta harrijasotzaileak eta kross eta antzekoak. Gure nortasunaren erakusketa antzekoa ditugu Santamasak. Laz zenbait artisauekin arazoak izan genituen, bereziki hemengoak ez ziren lanak burutzera etorri bait ziren. Aurten horrelako arazorik gerta ez dadin guk luzatu diegu gonbitea artisauei. Azken hamalau urtetan, festa berrindartzen hasi ginenetik hona hori izan da gure asmo nagusia".

AURTENGO AIPAGARRIENAK

Osteguna, 21
AEDren lehiaketan sari banaaketa. Arratsaldeko 7etan.
Ostirala, 22
Azoka plazan, 10etan.
Ganadu lehiaketa eta nekazar makineriaren feria, 10etan
Zaldibarren. Artisau lanen erakusketa, 11etan Biterin
Harrijasotzaile eta aizkolari-Txapelketa. 12,30etan Zaldibarren.
Bertso saioa, 7etan, Arnaia antzokian.
Larunbata, 23
Hertzainak, M-ak, Zarama. Gaueko 10etan.
Igandea, 24
Txorronpio Goizeko 11etan.
Olentzerori Agurra. Arratsaldeko 7,30etan.



Joxe Iturbe "Piloto" eta Kontxa Garro

Senar-emazte hauek ditugu Arrasaten baseritik bizi diren bakarretakoak. Bedoñako Bioso baserrian dihardute lanean. Ilunabar batez bertara hurbildu eta duten seme bakarra ere han zegoela kontu kontari hasi zitzaizkigun berehala. Euskal Herriko etxeetako ohiturei segituz, heldu orduko han genuen merienda mahai gainean. Biosokoak feriara urtero jaisten dira "Duela 30 urteko eta oraingo feriak desberdinak dira. Lehiaketa asuntuan ez, lehen ere bazegoen eta, baina bestela...". Gaur egun ganadu feriarik ez dugu. Ganaduak ikusteko aukera izango dugu erakusketarako ekartzen dira eta, baina ez da inolako salerosketarik, traturik izaten. "Orduan ganadu feria genuen garrantzitsua. Santamasak baino aste bat edo bi lehenago izaten zen, hilaren hamabostean normalean. Feria lekua zegoen herrian eta feria, nola esan, probintzi mailakoa edo izaten zen. Hor izango da alderik handiena. Idi onenak, txerri onenak, ganadu onenak hemen izaten ziren". Barazkiei dagokienez horrenbesteko alderik ez dagoela adierazi digute senar-emazteek. "Azoka asuntuan, barazkiak direla eta, beharbada orain lehen baino jende gehiago egongo da". Gaur egun Santa-

mas eguna erakusketa antzekoa dugu "Orain 30 urte edo gehiago, talogintza, txakolingintza eta guzti horiek ez ziren izaten. Guzti horiek Franco hil eta gero agertu ziren. Gaur egun behar bada orduan baino aberastasun handiagoa ikusten da feria inguruan".

Senar-emazteak solasaldi alaiean, batean batek eta hurrengoan besteak hitz eginez, zenbait urtetan Santamasak erdi galdurik egon zirela kontatu digute. "Santo Tomasak 15-20 urtetan galduta egon ziren. Ganadu feria desagertu egin zen Feria Lekua kendu zenean. Santo Tomas ospatzen zen baina inolako indarrik gabe. Kooperatibek ere horretan zer ikusia izan zuten" Kooperatiben kontuak bati baino gehiagori entzun dizkiogu Santamasetarako lan berezi hau prestatzerakoan. "Kooperatibak lanera joan ziren eta akabo. Indar guztia galdu zuen festak. Herritarrek kooperatibetan lan egiten zuten gehien bat. Lanera joan behar izaten zutenek, akabo festa". "Orain hamahiru bat urte berrindartu zen azoka. Denok festa indartu nahi zela eta pozik geunden. Hasieran gutxi hurbildu baginen ere, azoka indartzen joan da urteen poderioz".


imagen

ARGAZKI

GABONETAKO PROMOZIO BEREZIA

Argazki-roilu bat errebelatzeagatik beste argazki-roilu bat oparituko dizugu

Zerkaosteta 5, Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE



Aurten J. Forden "Diligintzia"n inspiratu naiz

Antton Olariaga, Santamasetako kartelgilea

Edozein festa edota ospakizun iragartzeko kartelak egin ohi ditugu, herriko pareta eta egoitzetan jarri, jendeari beronetan parte hartzera gonbidatuz. Arrasaten Santamas jaiek luxuzko kartelgilea dute, Antton Olariaga marrazkigilea. Lan ugari egin duen gizona. "Zakilixut" pertsonaia sortu eta hamaika urtez bizia eman dio eta gaur egun "Alukiss" azkonarrari damaio bizia.

— Arrasate Press: *Nolatan hasi zinen marrazkigintzan lan egiten?*

— Antton: Zaletasuna beti izan dut. Txitikitan izugarriko afizioa nuen eta komiki eta antzekoak kopiatzen ematen nuen denbora luzea. Dibertsioa zen niretzat. Gerora abilitadea nuela konturatu nintzen eta beharraren poderioz bizi izateko ere balio ziezada-keela.

Txistegintzan Zeruko Argian hasi nintzen orain dela hamazazpi urte. Lanak bidali nituen eta nere harridurarako, argitaratu egin zizkidaten. Arte Ederretako eskolan ikasteko eta ilustraziogintzan, Ikastoletako liburueterako marrazkiak egiteko aukera ere izan nuen. Garai hartan nire lehen pertsonaia bururatu zitzaidan eta Argian eta Anaitasunan landu nituen nire lehen pertsonaiak.

— *Umoregilea pertsonaialaia da beti?*

— Ez dakit. Kontraesan hori azpimarratu izan da, gauza alaiak egiten dituenak bere nortasuna oso serioa izaten duela. Edonola ere, nire ustez alde guztietan bezala denetik dago. Bakoitzak bere izakeraren arabera jokatzeko du. Ez dago horrelako lotura esturik. Hala ere, nahiz eta itxura oso serioa izan eta barrutik farre egin, gauzak humorearen prisma ikusteko ahalmena izan behar du. Nahitaezko baldintza duzu hori.

— *Nola hasi zinen Santamasetako kartelak egiten?*


— Ni orduan Bilbon nintzen eta kartela egiteko propo-

samena heldu zitzaidan. Ikastolentzat lanak egiten niharduen eta noiz behinka kultur mundutik enkarguren bat heltzen zitzaidan. Horietako bat Arrasateko kartela izan zen. Hasieran nik urrutitik ikusitako zerbait bezala egin nuen. Harez gero beste kartel ugari egin ditut. Lehen kartel hura egiterakoan, Santamasetako protagonista txerria izan ohi dela pentsatu nuen, feria Donostiatik ezagutzen bait nuen. Beraz gai nagusizat txerria hartzea pentsatu nuen eta honekin Arrasateko ezaugarriaren bat. Portaloia txiripaz hartu nuen eta gero Udalaitez ezagutzen nuenez berau hartu, Gabon inguruko feria honen elementuez gain barazkiak, etab.ak.

Urte-urte interpretazioa egin dudala konturatu naiz. Txerria ere, hasieran indefinitu samarra zegoena, sendotu egin da pertsonaia bihurtuz kartel barruan. Ondoren, txerria pelikula edo egoera bateko protagonista bihurtzea pentsatu nuen. Urte batean pirata, hurrengoan astronauta, etab.

— *Eta aurtengoa?*

— Beno, aurten, John Ford-en "Diligentzia" filmearen 50. urteurrena betetzen zela eta, nik ere bat egin nahi izan dut ospakizunarekin. Txikitan denok ikaragarri maite izan ditugu horrelako pelikulak eta denok jokatu izan dugu indio eta bakeroetara. Edonola ere, lana egiteko informazioa behar nuen,



Antton Olariaga

zine munduko aldizkariak irakurtzen hasi eta "Diligentzia" filmari buruzko erreportaia batekin egin nuen topo. Hala ere, nik ez nekien diligentzia nolakoa zen... Kasualitatez orain hilabete telebistan filma erakutsi zuten. Bideoz grabatu eta hiru edo lau bat bider ikusi nuen, zenbait apunte hartuz. Oso gustora lan egin dut kartel honetan, lan kurioa eta dibertigarria egin nahi nuen. Suertez, horrelako lanak egiten oso dibertitzen naiz neu ere.

— *Olariagaz hitz egitea 'Zakilixut'-ez hitz egitea da. Zer izan da 'Zakilixut' zuretzat?*

— Gauza dexente. Hasiera batean harridura. Hamaika urtez pertsonaia batekin elka-

rrekin bizitzea sorpresa delako. Ez nuen pentsatu horrenbesteko iraupena izango zuenik, ezta gutxiagorik ere. Aurretik pentsatuz gero hamaika urtez pertsonaia bat egingo duzula zorabioa sartzen zaizu.

Esperientzia berria ere bazela pentsatu nuen, inon ez bait nuen ikusten euskaraz egindako tirarik. Desafio txiki antzekoa zen nire buruarentzat.

Egia esan, hamaika urteak konturatu gabe pasatu dira. Pertsonaiak berak izugarriko bilakaera izan du alde grafiko aldetik. Guk askotan ez daukagu pertsonaia ulertzen den, onartzen den jakiteko erarik. Zaila gertatzen zaigu jendearen eritzia jakitea. Hala eta guztiz ere, pertsonaia onartua izan dela uste dut eta hori pozgarria da.

— *Zure eritziz pertsonaiek bizitza mugatua dute?*

— Bai, nire ustez bai. Batez ere, nekea etortzen denean, bai pertsonaia-arentzat eta bai egilearentzat uztea hobe delako. Horrek ez du esan nahi zenbait urtetara pertsonaia itzuliko ez denik, litekeena da.

— *Aurten Euskadi Saria eskuratu duzu, zein eritzi duzu sariez?*

— Niri Euskadi Saria urte barruko ilustratzaile onena omen nintzelako eman zidaten. Sariak laguntza direnean, lanean segitzeko estimulua direnean, oso ondo ikusten ditut. Nahiago dut dirua honetan gastatzea beste gauza batzuetan gastatzea baino.

Sariak badute ordea, beren parafermalia. Show-ak bihur daitezke, eta gero hor daude sari politikoak, nori eman, zertarako eman eta guzti hori.


Txibisto dantzalekua

*Ostirala 22,
Gaueko 11,30etan*

LOS BICHOS
+
TUJUANA IN
BLUE

*Larunbata 23,
Gabon-dantza*

EGAN
taldearekim



OHIALAK

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA

ZAINDU



*Seme-alabak
Aiton-amonak
eta gaixoak gain hartzen ditugu*

UTZ ITZAZUE
ESKU ONETAN

Arrasate 79 13 37

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egokl geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Muruamendiaraz gozo-dendak

jai zoriontsuak opa dizkizue

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 15 34 ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

“Gure borondatea Madrilera joatekoa da”

Jose Luis Elkoro, Bergaran alkate eta Madrilen senatore

Jose Luis Elkoro, gaur egungo Bergarako alkatea dugu. Franco hil ondorengo urte istilutsu haietan ere Bergarako alkatea izan zen eta “Bergarako Alkateak” izenarekin ezagutu zen mugimenduaren buru ezagutu genuen. Estatu espainolerako azken hauteskundeetan senatore aukeratu zuten HBko zerrendan. Egun istilutsuak izan dira azken hilabete honetakoak Jose Luis Elkororentzat, Madrilera hurbildu Parlamenduan parte hartzerantz eta bere kide bat hil zutela itzuli behar izan du Euskal Herrira.

— Arrasate Press: Telesforo Monzon bergararra zen, berak ere Espainiako Parlamenduan parte hartu zuen. Zuk Telesfororen urratsei jarraitzen diezu?

— Jose Luis Elkoro: Telesfororen helburuak eta gureak berdinak dira. Telesforo, Irujo eta Jose Antonio Agirre-ekin batera Madrilera hurbildu zen Euskal Herriko ordezkari moduan. Bere helburua gure nortasunari eustea, independentzia eskuratzea zen. Gure helburua ere berdina da.

— Gaur egun Bergarako alkate eta Madrilen senatore zaitugu. Nola uztartuko dituzu lan biak?

— Erabakitzeke dut. Momentu honetan Madrilen nire eginkizun zehatza zein izango den ez dakit eta Udalari begira ez dut postura zehatzik hartu. Madrilen nire premia balego, ni han egon beharra gertatuko balitz, lan hura alkatetzaren lanaren gain jarriko nuke. Ez dut esango alkatetza usteko prest nagoenik, ez bait dakit nire zeregina zein izango den.

— Zure ustez utziko dituzte Madrilera Legebiltzarrean parte hartzen?


— Gure borondatea Madrilera joatekoa da eta joango gara. Nik uste azkenean utziko digutela joaten. Gu hara joatea denontzat da interesgarria, guretzat zein beste alderdi politikoentzat. Hortik ara-

zoak konponduko dira edo behintzat arazoak konpon-tzen joateko lehen pausoak emango dira.

— Zu Josu Muguruza hil zutenean berarekin zeunden. Momentu hartan, zer pentsatu zenuen?

— Dena oso azkar gertatu zen. Ni nengoen lekutik pertsona bat moztorturik ikusi ahal izan nuen. Aurpegi osoa estalita zuen eta beltzez jantzita zegoen. Ez nuen sinistu benetakoa zenik harik eta pistolatik sua irtetzen ikusi nuen arte. Momentu hartan konturatu nintzen hura benetan gertatzen ari zela.

Une oso laburra izan zen. Egoeraz jabetu nintzenean, mahai azpira bota nintzen. Mahai pean Iñaki eta Josu



Jose Luis Elkoro

garako Alkateen” mugimendua? Zergatik Bergarako alkatearen inguruan?

— Alkateen mugimendua garai hartan gizarteak zuen hutsune bat bete zuen. Alderdi politikoak izkutan eta guk haien hutsunea bete genuen. Herrietan mugimendu gogorra zegoen eta norbait zuzendu beharra zeukan hura. Gu izan ginen. Alderdiak jokuan sartu zirenean guk erreleboa eman genien.

Bergarako alkatearen inguruan bildu ziren baina ez ni nintzelako.

— Zein izan zen zuen helburua?

— Gure helbururik nagusia ez zen bete. Gure helburua oraingoa zen Euskal Herriaren nortasunari erantzuna ematea. Alderdirik ez zegoen eta herri abertzalea bat eginda zutik zegoen. Madril oso urduri zegoen herria elkartuta zegoelako indar handiarekin. Bere ahalegin guztiak jarri zituen hori apurtzeko eta Kons tituzioarekin lortu zuen. Alderdi bakoitzak bere bidea hartu zuen.

— Alkate egon zaren garai biak gonbara ditzakezu?

— Oso desberdinak dira aro biak. Lehen herri abertzaleak adostasunean jokutzen zuen. Gaur egun borroka desberdinak dira, jokaerak aldatu egin dira, helburuak antzekoak diren arren. Batzuk helburuak ere aldatu dituzte. Garai hartako EIAk eta gaurko EEk dituzten helburuak ez dira berdinak. Beste partidoen helburuek berdinak izaten segitzen dute. Lehen, ez genituen droga, langabezia edota antzeko arazoak ezagutzen. Gaur egun, berriz, horiek Udaletxe bateko arazorik garrantzitsuenak dituzu.

“Madrilera joatea guretzat zein beste alderdientzat interesgarria da”

ikusi nituen eta hango trajediaz konturatu. Segundo batzuk bakarrik izan baziren ere, oso garbi ikusi nuen.

— Orain beldurrik sentitzen al duzu?

— Ez dut beldurrik. Edonola ere, Une askotan irudi haiek datozkit gogora. Egutero ikusten ditut. Ez ditut ahaztu, ez eta ahaztuko ere.

— Nola sortu zen “Ber-

Garai hartan foruen deusestapenaren lehen mendeurrena bete zen. Uztailaren 21ean Bergaran egun triste hura gogoratzekekin antolatuta zen. Jendeak zer-baiten beharra zuen, horrenbeste urtez isilean egon ondoren. Hura izan zen Franco hil ondoren, jendeak bere aspirazioak aldarrikatzeko izan zuen lehen aukera.



Hona hemen aurtengo finalistak

Santamas X. Pilota Txapelketa

Larunbatean izan ziren finalak Iturripen

Santamas X. Pilota Txapelketa urriaren hasieran jarri zuten martxan. 100 mutikotik gora hartu dute parte bertan, eta ondorioz 300 partidu baino gehiago jokatu behar izan dituzte larunbateko finaletara heldu aurretik.

Egitarauan zortzi final prestatu zituzten larunbaterako, baina azkenean zazpi besterik ez ziren jokatu. Maila polita erakutsi zuten pilotariek; eskuetan *takoak* eta guzti, eta profesionalen antzera sakea lortzen zutenean, hobeto zetorkien pilota aukeraturaz.

Dena den, hainbeste denbora lanean eman ondoren, Santamas Pilota Txapelketaren egunik garrantzitsuena heldu eta ia-ia pikutara joan zitzairen guztia, hamaikak aldean euria ekin zuenean. Iturripeko insta-

lazioak penagarriak direla argi gelditu zen berriz ere, baina nola edo hala (lurra errautsaz estaliz) aurrera egin zuten.

Azkenean, honako emaitza hauek eman ziren:

D Kimuak: Betzuenek 18, Zuzubiskarrek 12.

A Kimuak: Etxeberriak 18, Rubiak 12.

B Kimuak: Murgoitioak 18, Berasaluzek 11.

B Haurrak: Osinagak 16, Altubek 18.

A Haurrak: Zugastik 18, Urainek 16.

Gazteak: Zuazubiskarrek 22, Gonzalezek 18.

Nagusiak: Kortak 22, Gonzalezek 4..

■ Mondraren ereserkia:

Igandean aurkeztu zen Monterronen Mondra taldearen ereserki berria. Jose Ramon Vitoriaren musikaz, Jon Iñaki Izarzelaiak osotu du honako letra honekin:

*Ieup, Mondrako mutil gazteak
Ieup, Mondrako talde itzela,
Ieup, Arrasateko futbola,
aupa txuri eta ubela.*

*Hamaika dira herensugeak,
zelaian badatoz su ta garretan,
uste baino lehen lortuko dute
baloia sartzea saretan.*

*Gora Mondra,
beti jokatuz garbi.*

*Gora Mondra
txapelari segi.*

■ Herri kirolak

Santamas egunean, ostiralean, aizkolariak eta harrijasotzaileak izango ditugu Zaldibarrren. 12,30etan, Santamas aizkolari txapelketa, bikoteka (Olasagasti eta Zabalegi, Arrospide eta Muguerza-ren aurka).

Ordu batean berriz, harrijasotzaileak, Arrasateko bolo-harria jasotzen saiatuko direnak (Goenatxo, Bigitegi, Carlos Puello, Mikel Saralegi eta Iñaki Perurena).

■ Ziklokrossa

Larunbatean, Aretxabaletan, "Nazioarteko XX. Kriteriuma, Lan Kide Aurrezkiaren saria" antolatuko da (TVEko Challengerako baliogarrria). Besteak beste, honako txirridulari hauek hartuko dute parte: Pascal Richard, Mike Kluge, Georg Bickel, Steve Dounce, Iurrebaso, Francisco Sala, Tati Egiarte, J.R. Eizagirre, Iñigo Igartua...eta errepideetako profesional ezagunak diren Jokin Mujika, Iñaki Gaston, Leanizbarrutia, etabarrek.



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

podiuma

**Eugenio de Andres,
xakearen alde lanean**


Eugeniok hogeitamabi urte ditu, eta 1972an Arrasateko Xake taldea jaio zenetik bertan dihardu lanean. Maite duelako soilik, oso gutxi bait dira kontu honetatik bizi direnak.

Beti ere eztabaida txiki bat egon da xakearen inguruan, kirola dela edo ez dela. *"Nik baietz uste dut. Xakeak esfortzua eskatzen du, nahiz eta fisikoa ez izan. Gainera bi jokalariren arteko konpetizioa da, norgehiagoka, eta ondorioz kirola"*.

Xakeak birtute ugari eskaintzen omen dizkio pertsonari. *"Gizaki bezala formatzen zaitu, hau da, bizi-tza beste filosofia batez ikusten lagundu. Logika lantzen du, taktika ere bai, eta batez ere inizatibak hartu eta inizatiben erresponsabilitateak onartarazten dizkio jokalariori. Alde horretatik oso positiboa da"*.

Xakea elite intelektualaren joku-tzat ulertu izan da sarritan. *"Nik zera pentsatzen dut, ideia hori baztertu beharra dagoela. Hau ez da herriko mediku eta abadearen arteko jolasa, askok sinesten duten bezala. Benetan, inbidia pixka bat ematen dit Yugoslavia edo Errusiara joan, eta kirol hau herriarregan zenbateraino sustraitua dagoen ikusteak"*.

Arrasaten ere ba omen dago zale-tu franko, gehienbat ere jende gaztea. *"Arrasateko ekipoaren ezaugarria harrobiaz lan egitea da. Askotan jokalaria onak izan ditugu; baina batzuk lanagatik, besteak soldadutzara joateko adinean zeudelako...kontua da beti jende berria*



Eugenio de Andres

sartzen ibili behar izan garela. Gainera beti izan ditugu jokalaria gazteak inguruan, eta aurrera beralekin".

Seguraski, behar-beharrezkoa da ideiarene batzuk praktikara eramatea, Arrasaten xakea bultzatzeko, indartzeko. *"Bai, hala da. Alde batetik San Andresetik Erdikalderra eman nahiko genuke egoitza, periferian egotea ez bait da ona. Beste alde batetik, eskolako haurrengana hurbildu (eta horretarako ideia ederra iruditzen zaigu Arrasaten pertsona bat liberatzea, haurrei ikastetxeetan klaseak emateko). Jendea erakartzeko Txapelketa garrantzitsu bat antolatzea ere..."*.

Xake jokalariek estima handian izaten omen dute beren burua, eta zentzu horretan batzuk ez dira galtzaile onak. *"Bai, normalean jokalaria beteranoei gertatzen zaie hori; hamalau urteko mukizu bat etorri eta irabazten dietenean..."*.

Eugeniok, behintzat, edo partida asko irabazten ditu edo galtzaile ona da. Horren lekuko, kirol honen alde eman dituen ia hogeitau urteak!

Mondrak, 0-0

Pasaira joan larunbatez; autobusa ate aurrean jarri, hutsna enpatatu eta urrezko positiboa lortu zuen Mondrak. Ondo etorriko zaie Gabonetako atsedenaldea jokalariei indarrak berritzeko, eta ea urte berriarekin emaitza hobekak heltzen diren.

Rugbyan, chapeau

Errepaso ederra eman zieten Arrasate Kirolakeko mutikoteek Elorrixoko taldekoei. Aurrez neurketa zaila zirudien honetan, 6-27 nagusitu ziren arrasatearrak. Zorionak eta urte berri on!

Eskubaloian bikain


Denboraldi benetan borobila egiten ari dira Arrasate Kirolak eskubaloi taldeko jokalaria. Pasa den asteburuan ere 22-24 irabazi zuten, Urdulizeko bizkaitarren aurka izandako neurketan. Polito ari dira, lehen mailara eramango dituen bitan.

Saskian, Saskian...

Urte bukaera tristea saskibaloiko mutilena. Musakolako kiroldegian 78-86 galdu zuten Juven taldearen aurka, eta honenbestez hamaikagarraren porrota ezagutu dute jokatutako hamabi ihardunaldietan. Olentzerok ez al die oparirik ekarriko?

Denborapasen soluzioak

- Esaera zaharraak zaldiz
"Zenbat buru, hainbat aburu"
- Ezetz asmatu
"Zenbat buru, hainbat aburu"



OKENDO
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Sasoi onean dago korrika egiteko zaletasuna

Arrasaten, eta etorkizunerako ere badirudi harrobia zihurtatua daukagula.

Ikusi bestela neska-mutiko hauek probari ekiteko prest.



Haurrek bukatu eta gero, nagusien txanda heldu zen. Guztira 44 partaide, 43 gizonetako eta emakume bakarra.

Argazkian irteeraren momentua ikusten dugu, indarrak oraindik ere soberan zeudenean.



Parte hartzaile ugari, baina, jakina, halakoetan irabazle bakarria izan ohi da. Igandean, 617a heldu zen lehenengo helmugara, Pedro Zalama hain zuzen ere. sei km.ak betetzeko 19 minutu eta 46 segundu behar izan zituen.



Sailkapena

Bi proba ezberdin antolatuta ziren igandera-ko, bata neska-mutikoentzat eta bestea nagusientzat. Lehenengoan 38 parte-hartzaile, eta bigarrenean 44. Azkenean, honako sailkapen hauek:

7 urtekoak:

1. Aitor Jauregi.
1. Ainhoa Zenigao nandia.

8 urtekoak

1. Jose Galan.

9 urtekoak:

1. Jokin Lazpiur.
1. Nahia San Miguel.

10 urtekoak:

1. Iker Zabarte.
1. Saioa Barrena.

11 eta 12 urtekoak:

1. Felix Barcina.
1. Amaia Ramos.

13 eta 14 urtekoak:

1. Sergio Monreal.

Nagusietan:

1. Pedro Zalama, 19.46 denboraz.
2. J.R. Petreñas, 20.55.
3. P.J. Belinchon, 20.55.
4. Jose Galan, 21.14.
5. Antonio Herruzo, 21.47.

OIHANA LORATEGIAK badu denda berria

Arrasate pasealekua 8, Arrasate.

Trapo's

BOUTIQUE

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE



**LASO-ARREGI
ARGAZKI**

ERREBELATUAK ETA KOPIAK ORDUBETEAN

Eguberri hauetan eskaintza handiak argazki makina
eta bideokamaratan

%20ko beherapena edo beste argazki-erroilu bat zure
argazki-erroilu errebelatzeagatik

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

*Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412*

Lua

gozokiak

*Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE*

ALTUNA

**Lurrindegia
bisutegia
drogeria**

*Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23*



Azkenean zure zerbitzura !!

Bisita gaitzazu

Bilatu izoztuen benetako izotza

Jai zoriontsuak guztioi!!

Okendo kalea 3, ARRASATE

Zenbat buru, hainbat aburu

Bukatu da hainbeste zeresan sortu duen txapelketa, eta zeresan gehiago sortzeko moduan bukatu ere. Txapeldun berriak, Lopategik, Bizkaira ereman du aspaldian espero zutena (Belodromoan izan zuen in-txada, horren lekuko). Ez gara orain saioaren gorabeheraz hasiko, entzun ez duenak izango bait du modurik.

Txapelketen injustiziez hasiz gero, badakigu egun bateko lanaz "bertsolaririk onenaren titulua" eskuratzeko ez dela bidezko, galtzea ez den bezalaxe, eta horrexegatik esaten dira "gaur halako izan da txapeldun" bezalako esaldiak, garrantzia kentzeko-edo. Baina hainbat injustiagorik dira txapelketak egun horretako lana saritzen ez denean. Igandeko txapelduna Euskitze izan zen benetan. Nire eritzia dela esango dit norbaitek, eta bai, halaxe da. Lopategiri bererik kendu barik, azpei-



tiarrari emango nioke, nik neuk. Pentsatzen jarrita, epaimahaiaren neutraltasuna neutraltasun, eta gustuak gustu, gazteegi izate horrek eutsiko zion zenbaiten eskuari, nahi gabe ere, puntuak emateko orduan. Horra hor kontraesana: eguneko lanik onena saritu beharra, baina horrekin batera, ondorengo lau urteetarako txapelaren fama eta zama nori

leporatu? Ez bedi, halere, inor aztorra, eta begira igandekoaren alde onari: bertso bikainak erruz, belodromo gainezka eta bertsolaritzaren alde pauso bat gehiago. Telebistaren bidez patxadan, irratia- ren ondoan goxo, edo Belodromoko al- tabozetatik aukeran ozenegi entzuten egon ginenok emandako pausoa.


Arantzazu Loidi

IGARO USAINDEGIA

Kosmetika eta opariak

Barrenkale 27, Tfnoa: 76 17 72
BERGARA

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

ops
INMOBILIARIA

Kolegiatutako Gestore Inmobiliarioak

Jose Luis Elexpuru
Mertxe Fernandez

**EROSKETA
SALMENTA
ESKU ALDAKETA
ETXEBIZITZAK
LOKALAK
KONTRATUAK**

Gipuzkoa Etorbidea 37, Etxebehea. Tfnoa: 79 28 16

Benito eta Hertzainak, edo eklektizismoaren laudorioa

Harrigarria gerta daiteke, agian, zerbait gustokoa aurkitzea bestelakoa gorrotatzen hain ohituak gauden herri honetan. Baina Durangotik bueltan ekarri ditudan Hertzainak eta Benitoren disko berriak oso gustokoak ditut. Biak.

Benito Lertxundik kantu zaharrez osatu du azken disko hau. Eta aitortu beharrean nago hauxe dela Benitorengan gehien gustatzen zaidan arloa, folkarena hain zuzen. Oraingoan, gainera, bereziki inspiratua aurkitu dut Benito, hainbat urrats berri ematera ausartu bait da, eta ondo emanak. Eta bapatean Alan Stivell, Chieftains, Andreas Vollenweider eta "new age" musika nahastu zaizkit buruan, dantza zorabiotsuan. Eta hala ere Benito zen. Betiko Benito, berritua.

Disko ederra, heldua eta landua. Gailur izan bazitekeen ere, neuk



abiapuntu nahi nukeena.

Hertzainak-ekoek, beren aldetik, oso emaitza orekatua lortu dute azken honetan. Diskoa nobedade ausartez betea dago eta hala ere, taldearen hastapenetako indarra nabarmen ageri da bertan bizirik. Bibolin, txalaparta eta kitarra akustikoen ondoan, hor daude letra bortitzak eta esne txarra. Eta han-hemenka keinu

ugari, fimiñfoak ia beti, baina taldeak oraindik dituen posibilitate handiak susmarazten dituztenak.

Eta, gure artean, "soka-kuarteto" horren pasotea alde batera utzita, zein kantu ederra den "Aitormena" izenekoa!

Egia esan, ez dut uste Dr. Jekyll eta Mr. Hyde izan behar denik bi disko hauekin gozatzeko. Hertzainak-en zaleentzat Benitoren musika merengezko pastel go-gaikarria izango da eta Benitoren zaleentzat Hertzainak-ena ardo ozpindua. Bejondeiela!

Nik pastela nahiz ardoa biak ditut gogoko.

Mikel Irizar

Benito Lertxundi: "Pazko gaiardi onduak". Elkar argital.

Hertzainak: "Amets prefabrikatuak". Oihuka argital.



Neska-mutikook adi:

BADATOR OLENTZERO

Igandea, abenduak 24, Maalatik aterako da arratsaldeko 6etan Arrasateko kaleetatik zehar paseatzeko.

Goizez, TXORONPIO eta TXORONPIA, Olentzeroren lagunek, auzoz-auzo hartuko dituzte eskutitzak Olentzerorentzat. Zure zain ere egongo dira, parte har ezazu!

Jai Komisloa

“Tio Pitx” jatetxean

Bi errezeta ematekotan gelditu ginen eta hemen doaz. Lehenengo kangrejoak saltsan eta ondoren txokolate tarta.

Kangrejoak saltsan

4 lagunentzako osagaiak
Kilo bat kangreju
Saltsa egiteko: tomate zuritua
kipula
piper berdea
pimienta zuria
azukrea
Remy Martin edo Armagnac
oliba olio

Lehenengo oliba olio berotan eta ugaritan kangrejoak erretzen dira.

Beltzak direnez gorritzen direnean oliotatik atera daitezke. Batzuk erre beharrean egosi egiten dituzte, baina hone-laren tentetasuna galdu egiten da. Alde batera utziko ditugu kangrejoak eta saltsa prestatzen hasiko.

Kangrejoak erretzen erabilitako olio apur batean kipula ugari txiki txiki eginda erreko dugu. Gorritzen hasten denean

piperra zatituta botako diogu. Ondoren zuritutako tomateak txiki txiki eginda hauek ere, gehituko ditugu.

Eginda dagoela ikusten denean das-tatu egiten da garratzasuna neurtzeko. Garratza balego azukre gixi-gixi botako genioke.

Bizitasun puntua emateko pimienta zuria gehituko diogu. Dena batidoratik pasatuko dugu eta ondoren txinotik saltsa fin-fin geratzeko, azal eta hazi hondarrak kenduz.

Armagnac edo Remy Martin apur-txoat bota eta kangrejoak dauden on-tzian zabaldu. Berotu eta mahaira aterat-zeko prest daude.

Txokolate tarta

Osagaiak
egiteko txokolatea 200 gramu
azukrea 200 gramu
gurina 200 gramu
irina 150 gramu
Koilarakada bat hazkarri
5 arraultza
ron txurrutada bat

Txokolatea bainu marian urtzen da ur apurtxo bat botatzen zaiola hobeto urtzeko.

Beste ontzi batean gurina bigun samar eta azukrea nahastuko ditugu. Ore hau egidakoan urtutako txokolatea gehi-tzen zaio eta dena ondo nahastuta dagoe-nean arraultza gorringoak.


Aparte irina eta hazkarria ondo nahastuko ditugu eta poliki poliki eginda daukagun oreari gehituko diogu eragiten dugun bitartean grumoak egin ez daite-zen. Irina poliki eta ondo nahastea inpor-tantea da tarta hobeto igoko da eta. Zuringoak elur puntaraino jasoko ditugu eta beste denarekin nahastu poliki poliki.

Tarta-molde bat gurinaz igurtzi eta denean irin apurtxo bat bota.

Bertara ore a bota. Aurretik berotuta-ko labean sartuko dugu eta berrogei minututan edo eduki.

Eginda dagoenean ahalik eta laste-rren moldetik ateratzea komeni da.

Morokil Taldea



YXARTE -k jai zoriontsuak opa dizkizue
Udala auzoa 79 12 50 Arrasate

JAI ZORIONTSUAKI



Sport
SASIAIN

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA

PAGALDAI

Lurrundegia eta opari-gaiak

Durana 33, Tfnoa: 79 10 14
ARETXABALETA

**MARI MAR
ARTILEAK**

Puntozko jantziak
eskuz eta makinaz
egiten dira

Kalealdea 13, B.Tfnoa: 79 65 93
ARRASATE



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

OINETAKOEN
AUTO
ZERBITZUA

ZAPAT OS

Olarte 9,
Tfnoa: 79 41 29
ARRASATE

GOROSTI
Jatetxea

GERARDO ALUTID - ISABEL CANO

JAI ZORIONTSUAK

ONANDIA

Gozotegia
Izozkitegia
Dastalekua

Iturrlotz 11,
Tfnoa: 79 12 31
ARRASATE

7

MARES



Itsasoko jaki gozo guztiak
zeure mahaian, prezioak ere
izoztuta

Arrain, itsaski, barazki eta jaki
aurreprestatu izoztuak

ZERBITZU BERRIA, ZEURE
MAHAIRAKO

Okendo kalea (Azoka ondoan), ARRASATE

Gabonetan oparirik onena: disko bat



Aukerarik zabalena

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09
ARRASATE

Ekologia III

Deba ibaia dugu ingurunearen hondamendia adierazten duen adibide argienetakoa.

58 kilometroko ibilbidea duela-rik, 530 kilometro kubikoko arroa du eta bertan 1.700 industrietako isurkinak jasotzen ditu, baita 15 udalerritako biztanleen ere.

Ondorioak: Produktu kutsagarrien 46.000 metro kubiko botatzen dituzte industria horiek, 36.000 metro kubiko aldizkako isurkinak, 2.000 tona burdina 6.000 tona olio. Herriak ere ez dira atzera geratzen eta 25.000 metro kubikora heltzen dira guztion artean botatzen ditugun solido organikoak.

Askoz datu gehiago ere eman ahal izango genuke, baina hauekin nahikoa izango dela iruditzen zaigu.

Eta guzti hau "Aurrerakuntza"

eta "Ongitasuna"ren izenean egiten da. Aurrerakuntzaren egungo kondizioetan, gizona eta beronen inguru fisikoarekiko erlazioak medio direlarik, oinarritzko lau ondorio hauek sortzen dira:

- Galeren progresioa hazkunde ekonomikoa baino nabarmenagoa da.

- Ingurugiroaren erregresioa bizimoduaren progresioa baino handiagoa da.

- Pobretze psikofisikoa ingurugiroaren erregresioa baino handiagoa da.

- Kontrako zentzuan, aldaketa-berdintasunean, ingurugiroaren erregresioak ongitasuna gutxitzen du, bizimoduaren maila igotzen dena baino neurri handiagoan.

Naturak berekin dituen aberasta-

sun ez-materialak —hau da, onura biologikoak, poz estetikoak, edertasuna eta izpirituaren hainbat aberastasan, gero eta urriagoak dira mekanizazioaren, industrializazioaren, hirigintzaren, mundu biziaren neurrigabeko erabilera hondatzaileari esker.

Gerora, gure etxeak "kontsumo-ondasun" deritzen gauza pilo batez beterik egongo dira; baina aire garbia, isiltasuna, berdetasuna, lasaitasuna... gaur egun preziatzen ez ditugun ondasun guzti hauek hain urriak direnez, zibilizazioko ederren bilakatuko dira.

Ongizate = Bizi-maila + Bizi-baldintzak + Ingurugiroa
(Phillippe Saint-Mark)

*Eukeni Olabarrieta
— Arantxa Lizaso*

Lan eta zerbitzu onaren garantia

VICTOR RUIZ MELGAR pintorea

*Santamas eta Gabonetako jai zoriontsuak opa
dizkizue guztioi*

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE


Besaideko kontuak

Arrasate Pressek Hankamotz taldeari 15 egunetik behin idazteko aukera eman aurretik, gure taldeak idatzi zuen karta bat, non Besaideko egoeraren berri ematen genuen. Karta hura irakurri zenutenok, somatu ahal izango zenuten gure poza ezaren zergatia, alde batetik lekuz kanpoko irudi bat zegoelako eta bestalde pinuak bertaraino iristen zirelako.

Arrasateko zenbait mendizalek ere horrela pentsatu zuten gure kartak izan zuen zenbait bultzakide.

Orain gutxi dela, egunkarietan irakurri ahal izan dugu Besaideko inguruak txukundu eta dotoretu egin behar dituztela, lan hori, Euskal Herriko Mendizale Federakundeak bere gain hartzen duelarik. Zorionak.

Gure ustez Besaideko tontorrek pinuak ez diren beste arbola batzuk izateak asko jantziko ditu eta beste zenbait lekutatik urrunera ikusi ahal




izango dugu hiru mugen harria, eta ez orain moduan non dagoen ere ez dakigula hain pinu sail zabalean.

Esateko falta zaiguna, zera da: han egingo direnak guretzat izango direla eta jendea animatzen dugu

denonak ditugunak, maitatu eta zain ditzala. Bestalde, polita izan liteke azkeneko urteotan nola izan dugun bazter hura gogoratzeko osteratxo egitea, aldatu baino lehen noski!

Hankamotz

AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibal 10,
Alfonso X 6,

Tfnoak: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

Zure erosketak AKOBEN egiten badituzu KOTXE bat irabaz dezakezu



ZOKKETA
1990eko
urtarrilaren
19an

Volkswagem
Polo Coupé GT: 5cv.
autoa

THOMSON
VTS-200 Bideoa
40 aparatu

Notario aurreko ZOKKETA

Akobe



Jose Aranzabal

Elektrogailuak, TB. Bideo
Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

KOLTZA - *Jose Aranzabal*

Sukalderako altzariak, Oparigaiak
Bahez doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92



EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

21etik 2ra. Sebero Altuben

Erosi ezazu "ARRASATE 88" Lehiaketekin ateratako liburu
interesgarria: ipuinak, komikia...
MEREZI DU!

LIBURU AZOKAN...

***23an goizez Seberon : HAURRENTZAKO EKINTZAK
(Begiratu egitarauan)***

**Eta ahaztu barik ostiralean bertso
saiora**

***Arrasate pausoz-pauso
euskerarantz JO TA SUE !!***

ETXEBIZITZAK

- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuaz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pisuan gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisua salgai Uriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Inarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubetan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarroan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Ingeleseko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingeleseko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurri euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko nituzke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar da. 79 71 34. Ane.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Dei egin 79 07 73 Tfnoa.

SALEROSKETAK

- Salgai dituzun ploietak eta granpoiak erosiko nizkizuke. Jabier 79 50 53
- Fagor markako ikuztailua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnora.
- R-11 GTL berde metalizatua, SS-T salgai. Tfnoa: 79 94 86
- Solnua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prener bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Anplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-joku bat.
- Umeentzako kotxe Itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnora. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Micro Genie V-60 organo elektronikoa salgai. 8 ahots polifoniko, erritmo kontrola, efektuak mota melodikoak eta musika laguntzaz etab.. Interesatuak dei 79 33 35 tfnora. 8etatik aurrera
- Raider 2WD auto irrati-kontrolatua salgai, Challenger 250 irratiak . Baita bateriak eta beste, berri berria. Tfnoa: 79 52 31 . Iban 8etatik aurrera.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Carolina Albiso Aiarzabal
79 urte. Abenduaren 11an.

Justina Azkarreta Etxeberria
75 urte. 11an

Julian Larrañaga Uribetxebarria
86 urte. 12an

Andrés Aguilera Martín
52 urte. 14ean

Esperanza Delgado Esteban
84 urte. 15ean

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Balentina Urionabarrenetxea: "Orduen dendan danetik saltzen zan, diskuek be bai"



Dendan gazteik hasi

Zarraoakuen denda parien auen eskolie eta hara jueten nitzen. Egurnero eskolatik urtendakuen denda-kuek eurekin erueten nindduen bazkaitten. Gero beratzki bat urtekin Robustianok berak emungo euztela estubixuek eta ba, dendan hasi nintzen. Bertan lagundu eta eskolie ikesi. Arano maixue etorten zan nire kuadernuek eta ikusten.

Dendan danetik saldu

Orduen dendan, zer etzan saltzen! diskuek be bai. Erosi aurretik ipini eitten nutzien entzuteko. "Donde estarán nuestros mozos" eta nik: tikitik-tikitik, tiki-tiki, tikitik"

Egurnero disko berdife entzuten etorten zana be baeuen:

"Yo se que mis culpas no tienen disculpas ni tienen perdón..."

Neuketako hak zerbait baeuken bazien. Beste modu batekuek be:

"La chica del diecisiete gasta zapatos de tapilete sombrero de gran còpete y abrigo de petillí..."

Hau luziaue, baiñe politte da, granujakeixak dauko gaifera.

Propiñak eta pagie

Etxietara errekauek eifi biher izeten nittuen eta ba erriel bi eta askotan emuten euztien.

Elmako zer danak pe domekero pagie eta nik ba kuadernuen apun-taute neuken.

Don Gregoriok hainbeste ...

Don Julianek hainbeste...

Gero ulie ebaittie 45 zentimo, txupatxuse 5 zentimo. Diferentzie atara eta Mikeletiena dirue erueten, hareik eukitten auien kartillie eta.

Anaiei "pena de muerte" kendu

Gerra denporan, anaie, Oreja hiltiaz akusetan auien eta hiru pena de muerte auken. Ifundienak eifi nittuen orduen. Hemengo batek nobixue militarra auken eta hareana juen, esplikau dana guzurre zelan zan eta hak, Don Esteban Bilbaona bieldu nindduen. Don Estebanorreana allegau nitzenien hak:

¿Pero chiquita en tu casa no hay nadie mayor que tu? Neure artien ,ointxe enterauko haz ba:

"Están todos en la carcel"

Don Estebanorrek beste karta bat emun eta audientziara. Han gizon haundi batek heldu eta eruen nindduen barrure. Hiru montoi eozen mahai gafien, danak pena de muertiek. Banan-banan begiretu eta esan euzten:

"Aquí está, tienes suerte chiquita"

Gero juiziue euki auen eta kendutzien pena de muertiok.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Medikuanian:

— Alde guztietako minez nago. Min buruan, min iztarretan, min gibelian... Zortzi egun daroiat lorik eitteke, zortzi egun jan barik...

— Eta ostientzian ze moduz zagoz?

■ ■ ■ ■ ■

Eibartar batzuk joan ei zien Briviesca aldera kazara eta egifihalako eurixak hartuta etxe batera jo ei eben mela-mela eginda. Etxekuok hain ondo hartu ei zittuen eze, Burgos aldetik bueltau zienian harei erregalutxo bat bialtzia pentsau ei eben. Han urdaiazpikuak eta holakuak baziela ta, itsasoko zerbait bialtzia hobe izango zala erabagi eben. Eta paketetxo baten zera bialdu ei eben Briviescara: legatza, itsas-lanpermak eta txakolin botila bat, Euskal Herriko ardaua zelakua zan jakin zeixen.

Handik laster izan ei eben kontestazifua eskerrak emonez. Beren kartiak hau zifuan: "Eskerrak zuen erregaluengatik. Legatza, baba-bel-tzekin ipinita, ederra euan; beste binagrillo hori, pasablia, eta beste landarok, berriz, sartu dittugu ortuan eta ikusiko dogu zerk urtetzen daben".

■ ■ ■ ■ ■

Patxiko kamiferuak baziharduan bide baztarrian. Ezin igarri lanian ala denpora pasa ziharduan. Hone-tan Txomin laguna pasau zan albo-tik.

- Ze Patxiko, lanik eta eitten juau ero?

- Ba..., pagatzen dabenagatik...

- Gutxi pagatzen juek ala?

- Ba... eitten dogunagatik...

Juan Martin Elexpuru



Jai zorientsuak



Olarte 6, Tfnoa: 79 46 94 ARRASATE

ORTZI erretegia

**Anglozar Auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA**



H

erriko plazaren kioskoan On Frantzisko Urrutia maisua hirurogeita-malau ikaslerekin.

1925. urtea zen, gutxi gorabehera. Garai hartan eskola udaletxean bertan zegoen, lehen solairuan. Ez ziren, beraz, gehiegi urrundu argazki hau ateratzeko. Hauetako zenbait ume oraindik bizi da, jubilatuta jakina. On Frantzisko Urrutia ez; 1971an hil zen, hirurogeitamahiru urterekin.

Aretxabaletako Galartza auzoko *Goitikoa* baserrian jaioa, Gasteizen Magisteritza ikasi eta gero Errenterira joan zen eskola ematera. Handik Mondragoera etorri eta hemen udal maisua izan zen, orduan eskola nazionalik ez zegoen eta.

1931n udaletxeko enplegatu bihurtu zen 1936ra arte. Gerra denboran Bizkai aldera egin zuen

alde, eta 1941era arte ezin izan zen Arrasatera itzuli, galtzaileen aldean egon bait zen. Haren anaia Joaquin, Garagartzako abadea, berriz, karlista sutsua izan. Itzuli eta gero On Frantziskok Forjas de Zubillaga enpresako administraritzan egin zuen lan, erretiratu arte.

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak - Enkuadernazioak

IREKI BERRIA

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

HERRI Irratia



Radio POPULAR
G I P U Z K O A

DONOSTIA

Garibai, 19
Tel. 42 36 44
Fax. 42 78 21

O.M. 1.224
F.M. 88'5

LOIOLA

Azpeitia
Tel. 81 44 58
Fax. 81 39 44

F.M. 99'8

COLLAGE I (Iraultzaz)

Estrategia hitzari darion odola kalkulatu gabe,
Irabazteaz arrotu gabe, galeraz etsitu gabe,
Lautadetan doan harmadak
erreboluzio sozialaren banderak zabaltzen ditu.

(J. Sarrionaindia)

Mourrons pour des idées, d'accord, mais de mort lente.
(Hil gaitezen ideiatatik, ados, baina heriotz geldoaz).

(G. Brassens)

Irlaren batetera joango ginateke bestelde
Inon irlarik balego
Edo herri honetako proiektuan murgilduko
Utopia ausartenak ere hain zikoitzak ez balira hemen.

(B. Atxaga)

Elebitasunaren harri bitxiak
La revolución pendiente: iraultza belarritakoa.

(J. Iriberry)

I- Munduan zehar dabilen munstroa: iraultza faltsua.
II- Iraultzaren izenean boterea bermatu egiten bada, iraultza hori ala faltsua da ala traizionatua izan da.

(Elsa Morante; Komunisten manifestu txikia -klase eta partidurik gabekoa-)

Iraultzek boterea hartzea dute helburu. "Imaginazioa boterera" esaldiak hori dakarkit gogora. Nahiago dut imaginazioa boterearen kontra. Gurago dudana da "insumiso" hitza. Borobil-borobila da.

(L. E. Aute)



■ **Kirol medikuntza Euskadi Irratian:** Beste egunen batean Euskadi Irratiko kirol saioei buruz eskuarki hitz egingo dut, baina gaur saio horren barruan ostiraletan hamar bat minutuz korrikalarientzat Antton Gorrotxategi mediku gaztearen eskutik antolatu duten atal hori aipatu nahiko nuke.

Honez gero, bizpahiru bider entzun dut Gorrotxategi doktoarearen ekitaldia eta beti gustatu zait. Behobia-Donostia eta Donostiako maratoiaren bezperatan entzun nion eta oso aholku praktiko eta kontuan hartzekoak eman zituen. Joan den ostiraletan ere tendinitisari buruz ari izan ziren, eta gauza bera. Gutxi balitz, Anttonek euskara ederra du eta oso argia da ematen dituen azalpenetan.

Hamarkada honen hasieran arinetaren loraldia hasi zenetik gehiegikeria franko egin izan dugu, hastapenetan gehien bat, jende askok maratoietan eta apenas prestatu barik parte hartzen zuenean. Askotan urteen poderioz eta lesio askoren gainera ikasi dugu gauzak bere neurrian egiten, baina ez komunikabideetan aholku zuzen eta ulergarri izan dugulako.

Orain zorionez Euskadi Irratiak eskaintzen digu aukera hori eta korrikalarion artean asko eta asko euskaldunak garela erreparatu ondoren, nik gauzatxo bat erantsiko nioke Antton Gorrotxategiren saioari, aberatsagoa izan dadin, aukera eman diezaiola entzuleari deitzeko, eta zuzenean, medikuarekin batera dituen zalantzak argitzeko. Posible balitz, zoragarri.

Bestela ere, korrikalariontzat kontuan hartzeko saio polita.

■ **Asteburuetako "Gaur Egun" albistegiak ETBn:** Konturatu bazarete, larunbat-igandeetako albistegiak ETBn apur bat desberdinak dira itxura aldetik. Aurkezlea, Maddalen Iriarte, ez dago mahai atzean jarrita, mahai ondoko aulkian baino, paperak altzoan dituela. Eta inportanteagoa: zein ondo betetzen duen Maddalenek bere lana! Hasieran berbetan ametralladora hutsa ematen zuena, baretu egin da, denboraz heldu, eta hitz egiteko betiko erraztasunari gauzak esateko patxada eta dotorezia erantsi dizkio. Ikusle soila naizen aldetik, uste dut Maddalen Iriarte hortik zehar ikus ditzakegun esatari hoberenen multzo urrian dagoela. Besteok badugu non ikasirik.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu


■ **Hau egoera larria:** Ostiraletan, gaueko 9etan, Michael Apted-ek zuzendutako filmea. Antzesleak Richard Pryor eta Rachel Ticotin.

Film honetan, argi mozketa baten ondorioz ospitale batean sortutako egoera larri eta kaotikoa azaltzen zaigu.

■ **Nahi duzun guztia:** Larunbatean, 15,50etatik 20,30etara. Haurrei eskainitako programa, Koro Lasarteren eskutik. Urtean zehar emandako telesail, marrazki bizi-dun, etab. arren zatiak emango dira. Ondoren, haurrek aukera izango dute etxetik deitu eta urteko onenak aukeratzeko. Botu bilketa egin eta gero, aukeratuak izaten direnen kapituluak emango dira.

■ **Hemen eta munduan:** Programa berezia eskainiko dute astelehenean, 21,50etan. Estepan Aldamizek aurkeztuta, bukatzeaz dagoen urteko gertakizunen bilduma eta balorazioak ikusi ahal izango ditugu; beste nolabait esateko, urtearen laburpena iruditan!

bideoak



Biobonba

Bioteknologiak eman diezaguke janari, txerto eta botika berriak eta erregaiak eta produktu kimikoak industriarentzat. Lagun dezake poluzioa arintzen, uzta oparagoak lortzen, etab.

Guzti honetaz ari da New Scientist Quest-ek egindako bideo interesgarri hau. Elhuyarren eskutik. Beta nahiz VHSn.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)


Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

ZAIN DITZAGUN EZAGUTUZ ...



330 or.
3.500 Pta.
27 x 19 zm.

MIGUEL ANGULOren 3. lan mardula
ELKAR Argitaletxeko **MENDIA** sailean
Argazki ugari eta txundigarriak!



ARRASATEKO UDALA

EGUBERRI-JAI ZORIONTSUAK

ETA URTEBERRI ON OPA

DIZKIZUE ARRASATEKO


UDALBATZAK ARRASATEAR

GUZTIOI

KAJOI TABERNA

*Jai zoriontsuak
eta urte berri ona
opa dizue guztioi*

Erdiko kale 22, Tfnoa: 79 32 27 ARRASATE



*Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak*

Basabe industrialdea
ARETXABALETA


Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Gorka

**ILEAPAINDEGI
MIXTOA**



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoak: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



PEÑACOBIA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

Esaera zaharrak zaldiz

Xake edo ajedrezeko zaldiaren antzera mugituz, elkar itzazu silabak atsotitza osatu arte

		BU	BAT
BU	HAIN		
	BAT	A	RU,
	RU.		ZEN



Ezetz asmatu

Non kokatzen zen aintzina Arrasaten zegoen gaztelua?

- a) San Kristobalen
- b) Udalaiz puntan
- d) Egun Monterron jauregia dagoen lekuan
- e) Santa Barbaran

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gehiegi eskatzen diozu zure buruari; honela inoiz ez zara gustora sentituko. Helburu batzuk lortzea ezinezkoa zaizula onartu eta zure esku dagoenari ekin.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Espero ez zenuena gertatuko zaizu, benetan zure gustokoa izango dena. Egia esan, holako zerbaiten beharrea zaude galdutako ilusioa berreskuratzeko.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Polita izan den abenturari puntu finala jartzea mingarria da beti. Batez ere amaiera horrek bakarrik geratzea suposatzen badu. Ondo pentsatu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Animatu zaitetz pentsatuta duzuna aurre-eramateko. Orain egiten ez baduzu gero eta zailago irudituko bait zaizu. Lehenengo pausua eman behar duzu.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Planeatzen ari zaren bidaia horretan esperientzia berri eta aberasgarriak bizitzeko aukera izango duzu. Zaindu ondo poltsikoa.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Lortu duzuna ez da nahikoa. Oraindik zailena falta zaizu. Ez zaitetz geldirik geratu eta zure buruari proposaturikoa lortu arte, aurrera segi.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zauden egoera zure gustokoa ez bada ere, helburu hori lortzeko ezinbestekoa duzu. Pentsa ezazu denbora gutxi barru giroz aldatuko duzula.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Itxaroten ari zarena heltzeaz dago. Ez zaitetz, bada, gehiegi kezka. Momentuz egoera garrantzitsu honetaz gozatzea duzu egokiena.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Egunero ikusten duzun norbaitek sorpresa emango dizu. Hortik aurrera gerta daitekeena ezin da aurrakusi, baina neurri haundi batean zure esku dago.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Pozik egon zaitetzke egindako lan mordoagatik. Orain hurrengo pausua emateko prest zaude, baina ez aguroegi ibili. Lasaitxo hobeto egingo duzu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra


Nahiz eta lanpetuta egon, zure ordutegian kirola egiteari txokoa egin beharko zenioke, zure "body"ak eskertuko lizuke. Gogoratu "mens sana in corpore sano".



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Aste honetan umore txarrez egongo zara, arrazoa zein den jakin gabe. Agian hartu dituzun ohitura txarren artean bilatu beharko zenuke.

BERRI ONAK ENTZUTEA
OPA DIZU BIHOTZEA
RENAULT SAREAK



MECA

MECA tailerrak
Arrasate